



Tokiko errealitate eta beharrianen
Azterketa Diagnostikoa

LANDA AUZOAK

2025eko iraila

Egileak:  **Eikertalde**
 **next**

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA ETA LAN-PROZESUA	5
3. EREMUAREN AURKEZPENA	10
3.1. Biztanleria eta bizitokia	10
4. EREMUKO AZTERKETA-DIAGNOSTIKOA	15
4.1. Ekonomia, enplegua eta establezimenduak	15
4.2. Etxebizitza	20
4.3. Ingurumena, hiri-espazioa eta garraioa- mugikortasuna	22
4.4. Bizitza eta komunitate-bizikidetza	24
4.5. Gobernantza eta zerbitzuak	29
5. DATU KUALITATIBOAK	32
5.1. Elkarrizketa sakonak	32
5.2. Talde eragileen sorrera	35
5.3. Talde elkarrizketa	37
5.4. Tailer irekiak	42
5.5. Ibilbide gidatuak (Deribak)	45
6. IRAKURKETA SINTETIKOA ETA ONDORIO NAGUSIAK	54
7. GAKO ETA LEHENTASUN NAGUSIAK	57
8. GLOSARIO LABURRA	59

1. SARRERA

Tolosako Udalak abiatutako AuzoEkin estrategiak tokiko-garapen eredu berri baterako oinarriak ezartzea bilatzen du. Tolosako auzoak 8 eremutan sailkatuz, eremu bakoitzeko herritarren inplikazio aktiboa sustatu eta gobernantza-esparru parte-hartzaile berri bat osatzeko bideari ekiten zaio. Tolosako Udalaren eta bizilagunen arteko harremanean sakonduz, plangintza eta erabaki-hartze esparru eta prozesu eraginkorrak ahalbidetzea da asmoa, eremu bakoitzaren behar espezifikoak aintzat hartuz. Hortaz, egitasmoak 2 premia nagusiri erantzuna ematea bilatzen du: Tolosako auzoen garapen integrala eta orekatua bultzatzea, eta herritarren erabaki-gaitasuna areagotzea.

Ibilbide horretan, lehendabiziko eginkizuna eremu bakoitzaren egungo egoeraren azterketa diagnostiko integrala egitea da. Diagnostiko hauek dira, hain zuzen ere, eremu bakoitzeko aurrera begirako bide-orriak (Auzo planak) formulatzeko oinarria. Horrela epe luzerako ikuspegia barneratzen duen gobernantza eredu eta plangintza estrategia errotuak egituratzeko balioa izan beharko luke AuzoEkin proiektuak.

Tolosako Udalak 3 eremu izendatu ditu AuzoEkinen aurreneko esperientzia errealak egituratzeko: Landa auzoak; Bidebieta-Iparragirre-Izaskun; eta San Esteban. Azterketa honek eremu hauetako bakoitzaren analisi xehetua aurkezten du, bakoitzaren testuingurua, bilakaera, egoera eta beharizan nagusienak azalduz.

Azterketa-diagnostiko hau eremu honetako lehentasunak zehaztu eta aurrera begirako garapen estrategiak finkatzeko abiapuntu gisa aurkezten da, ondorengo helburuak bilatuz:

- 1.** Eremuko ezaugarriak eta bilakaera zehaztasunez ezagutzea, demografiari, hiri-espazioari, etxebizitzari, ingurumenari, ekonomiari, enpleguari, bizikidetzari, zerbitzuei, gobernantzari... dagozkion ikuspegiak txertatuz.
- 2.** Oinarri kualitatibo eta kuantitatibo sendoak dituen bermedun azterketa garatzea, datu enpirikoetan eta bizilagunen ahotsen entzute aktiboan oinarritutako informazioa eta ezagutza eskuratuz.
- 3.** Eremuko bizilagunen eta eragile sozioekonomiko esanguratsuenen parte-hartzea ahalbidetu eta inplikazio zuzena sustatu auzogintza aktibatuz.
- 4.** Eremuko zehaztasunak aintzat hartuz, Auzo planen bidez egikarrituko den udalerriko tokiko garapen estrategia orekatua bideratzeko oinarriak jartzea.
- 5.** Eremuaren ardura duten talde eragileen eta udalaren arteko interlokuzioan eta elkarlanean oinarrituko den tokiko gobernantza eredu iraunkor eta emankorra eratzeke oinarriak egituratzea.

Azterketa-diagnostikoa garatzeko, eremuaren analisi sakon eta zorrotza ahalbidetzen duen lan-metodologia erabili da. Ikerketa teknika analitikoen, kualitatiboen eta kuantitatiboen arteko konbinaketa hirukoitzetik egituratu da azterlana. Era horretan, aztergai den eremuaren konplexutasun osoa barneratzeko gaitasuna bermatzen da. Lehendabiziko aurreirakurketa analitikoak eremuko testuingurua kokatu eta haren kasuistiken eta ibilbidearen birpasa egiteko balioa du. Horretarako, Udalak eskainitako informazio dokumentalaren analisisa gauzatu da, bereziki.

Eremuko egungo errealitatearen irudia lortzeko garatutako ikerketa kuantitatiboak bi input nagusi baliatu ditu. Alde batetik, Udalak eskainitako informazio estatistikoaren eta iturri estatistiko ofizialetatik eratorritako informazioaren ustiaketa eta analisisa gauzatu da. Bestetik, eremuko biztanleriaren lagin adierazgarri bat hautatuta, aurrez-aurre garatutako inkestetatik eratorritako informazioaren ustiaketa eta irakurketa analitikoa gauzatu da.

Azkenik, bizilagunen beharrianak ezagutu eta aurrera begirako lehentasunak identifikatzeko garatutako ikerketaren alderdi kualitatiboari dagokionez hainbat izan dira bizilagunen beharrian erabilitako teknikak. Hortaz, eremuko informatzaile klabeekin elkarrizketa sakonak osatu dira, eztabaida saio irekiak garatu dira, aldezturik hautatutako bizilagunekin focus talde saioak egin dira, eta bizilagunekin antolatutako ibilaldi gidatuak gauzatu dira.

Azterketa-diagnostikoaren egiturari dagokionez honako sekuentziazioa jarraitzen da: lehendabizi, eremuaren aurkezpen orokorra egiten da. Aurkezpenak eremuaren ezaugarri orokorren azalpena egiten du. Jarraian, eremuko azterketa zehatzaren emaitzak eta irakurketa gurutzatuak plazaratzen dira, biztanleriaren egiturari, ekonomiari eta enpleguari, hiri-espazioari, etxebizitzari, mugikortasunari, bizikidetzari etab. erreparatuz. Ondoren, azterketa-diagnostikoaren ondorioztapen nagusiak adierazten dira sintesi gisa.

Bukatzeko, era orokorrean, AuzoEkinen ondorengo faseari begira, era bateratuan eremu guztietan amankomunean azaldutako elementu nagusiak aintzat hartuz, lehentasunen zehaztapenerako aurreneko gako batzuk irudikatzen dira.

2. METODOLOGIA ETA LAN-PROZESUA

Aurreazterketa analitikoa

Input kuantitatiboak

Input kualitatiboak

☐ AuzoEkinen aurkezpena

☐ Informazio estatistikoa

☐ Talde eragileen sorrera

☐ Material dokumentalak

☐ Inkestatze prozesua

☐ Elkarriketa sakonak

☐ Focus taldeak

☐ Saio irekiak

☐ Ibilaldi gidatuak

A) Aurreazterketa analitikoa

Aurreazterketari esker proiektuaren testuingurua kokatu da. Tolosako dinamika orokorra birpasatu eta eremu bakoitzaren bilakaera ezagutu da. Udalerri mailako eta eremu bakoitzari era espezifikoan eragiten dioten lanketak gainbegiratu dira eta 3 eremuen ibilbideak arakatu dira. Hurbilketa honen bitartez lan-planteamenduaren eta -prozeduraren nondik norakoak aditzera eman eta egokitu dira.

AuzoEkinen aurkezpen saioak

Prozedura:

Banakako aurkezpen saio ireki bana eremu bakoitzean

Helburua:

Bizilagunei dinamikaren berri ematea, egitasmoaren abiapuntua, helburuak, prozedura eta faseak azalduz

Data:

2025eko martxoa

Material dokumentalak

Dokumentuak:

Gai anitzei buruzko txosten teknikoak, diagnostikoak, planak eta parte-hartze prozesuak aztertu dira

Prozedura:

Dokumentuen irakurketa eta edukien analisi inductiboa gauzatzea

Helburua:

Ondorengo lan-faseetarako oinarritzko elementu aipagarrien identifikazioa eta kategorizazioa

B) Input kuantitatiboak

Lan-sekuentziazioaren bigarren ardatza informazio kuantitatiboaren erabileran datza. Horretarako iturri anitzetatik eratorritako datu kuantitatiboak bildu, tratatu eta ustiatu dira. Informazio kuantitatiboak eskainitako inputak eremu bakoitzaren egungo egoeraren erretratua egiteko eta hauen bilakaeraren jakitun izateko baliatu dira, batik bat. Diagnostikoaren ekarpen kuantitatiboa iturri ofizialetako fitxategi estatistikoak eta inkestatze-prozesu sakon bat erabiliz eman da. Era berean, bide batetik eta bestetik lortutako informazioaren triangulazioa burutu da emaitzen adierazgarritasuna sendotzeko.

Informazio estatistikoa

Prozedura:	atorrizko datuen aurre-sailkapena, batuketa, baheketa, antolaketa, ustiaketa, gurutzaketa eta erlatibizatzea osatu dira kasu guztietan, irakurketa espezifikoak eta integralak ahalbidetzen dituzten emaitzak garatuz
Helburua:	Plano desberdinetan eremu bakoitzari dagokionez egungo egoera zein den behatzea eta egon daitezkeen erronka nagusienak identifikatzea Udal informazioa Errolda Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, nazionalitatea, jatorria, titulazio maila, emantzipazio maila Helburua: biztanleriaren ezaugarri orokorren azpimarra, eremuen aurreneko erretratu demografikoa lortuz Epeak: 2015 eta 2024ko erroldak Etxebizitza huts potentzialen errolda Aldagaiak: etxebizitza huts potentzialak Helburua: etxebizitza parkearen erabilpenaren hurbilketa, eremuetako etxebizitza huts potentzialak identifikatuz Epeak: 2015 eta 2024ko etxebizitza huts potentzialen erroldak Eustat JEGID (Jarduera Ekonomikoen Gida Zerrenda) Aldagaiak: establezimenduak eta enpleguak Helburua: establezimenduen eta enpleguen begirada, sektoreetako jarduera ekonomikoen arabera Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko JEGIDak Lanbide Eskatzaileak Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, jatorria, titulazio maila, lan-sektorea, langabezia mota eta iraupena eta jasotako laguntzen tipologia Helburua: langabeen ezaugarritzea osatuz eremu bakoitzeko langabeziaren irudi dinamikoa jasotzea Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko eskatzaileen fitxategiak Kontratazioak Aldagaiak: sexua, adin-taldeak, jatorria, titulazio maila, lan-sektorea, lan-lekua, lan-mota eta lanaldia Helburua: kontratazioen birpasa, eremu bakoitzeko bizilagunen lan-egoera berrien irudi orokorra jasoz Epeak: 2015, 2018, 2021 eta 2024ko kontratazioen fitxategiak

Inkestatze prozesua

Prozedura:	Eremu bakoitzean aurrez aurre garatutako inkestatze-prozesu konbinatua (galdera itxiak eta iritzi-galdera irekiak), erantzunak tablet elektronikoetan, CAPI (Computer-Assisted Personal Interviewing) sistemaren bidez erregistratuz
Lagina:	Erroldako datuak aintzat hartuz definitutako lagin estatistikoki adierazgarria » 3 eremuen osotasuna: 2.543 biz. / 562 inkesta (3,7% akats maila %95 Konfiantza Mailarako) » Landa auzoak: 530 biz. / 168 inkesta (6,3% akats maila %95 Konfiantza Mailarako)
Aldagaiak:	Enplegua, ekonomikoa, etxebizitza, ingurumena eta hiri-espazioa, garraioa, bizitza eta komunitatea, gobernantza eta zerbitzuak...
Helburua:	Bizilagunen ikuspegi zuzena jasotzea eremu bakoitzeko egungo baldintza eta egoera islatuz eta aurrera begirako erronka eta beharrian nagusienei buruzko lehenbiziko aztarnak antzemanaz
Data:	2025eko maiatza-ekaina

C) Input kualitatiboak

Informazio kuantitatiboarekin batera informazio kualitatiboak hartzen du lan-prozesuaren zatirik nabarmenena. Input kualitatiboak ezinbestekoak izan dira alde zurretik garatutako analisi kuantitatiboa osatzeko eta fintzeko, eremu bakoitzaren errealitatearen ikuspegiak txertatuz. Gainera, aurrera begirako plangintza faseetan kontuan izan beharreko premien lehenespina egituratzen hasteko funtsezko elementua bilakatu da. Hainbat izan dira, komunitate-dinamikak gaituz garatu diren parte-hartzean oinarritutako lanketak, hala nola, talde eragileen sorrera saioak, elkarrizketak, saio irekiak, focus taldeak, eta ibilaldi gidatuak. Bide hauetako bakoitzetik lortutako informazioa elkarren artean kontrastatua izan da elementu esanguratsuenak azpimarratuz.

Talde eragileen sorrera: Talde eragileak dira lurralde batean eragina duten edo interesa duten eragile, norbanako edo kolektiboen multzo antolatutak, partaidetza-prozesu batean erabakietan parte hartzeko eta orientatzeko gaitasuna dutenak. Partehartze prozesuetan, talde eragileak funtsezkoak dira hasierako diagnostiko soziala egiteko, norabide estrategikoak markatzeko eta komunitatearen ordezkariak zabaltzeko (Subirats et al., 2008). Horrelako taldeek auzoko ahots anitzak biltzea bilatzen dute, ikuspegiak aberasteko eta konfiantza soziala eraikitzeko.

Talde eragileen sorrera saioak

Prozedura:	2 orduko iraupeneko lan-saio irekia, proiektua berrazaldu eta espektatibak partekatuz, eta taldeen eraketarako eta eremuen egungo egoeraren aurreneko hurbilketa jasotzeko lan-dinamika parte-hartzaile espezifikoak gauzatuz
Helburua:	eremuan AuzoEkin dinamika gidatzeko partaideen identifikazioa gauzatzea, talde eragilea eta honen antolaketarako erak finkatuz. Honez gain, eremuko indargune eta mehatxuak identifikatzen hastea
Parte hartzea:	15 bizilagun
Data:	2025eko apirila

Elkarrizketa sakonak: Elkarrizketa sakonak tresna eraldatzaile gisa ulertzen dira ikuspegi kritikotik, komunitatearen ahalduntzea eta botere-harremanen desnaturalizazioa bultzatzeko ahalmena dutelako. Metodo honek aukera ematen du subjektuen ahotsa eta bizipenak lehen planora ekartzeko, egitura sozialek nola eragiten duten azaleratuz eta eraldaketarako gakoak identifikatuz.

Elkarrizketa sakonak

Prozedura:	jarraipen gidoi arinetan oinarritutako 5 elkarrizketa erdiegituratu. Elkarrizketak kolektiboak izan dira talde eragileak aldeztu aurretik identifikatutako informatzaile klabeekin, profil aniztasuna zainduz
Helburua:	eremuaren bilakaera ezagutu eta egungo egoera eta dinamika propioak era zuzenean identifikatzea erronka nabarmenenak islatuz eta tokiko behar nagusienak azaleratuz
Parte hartzea:	5 saio 13 pertsonekin
Data:	2025eko apirila-ekaina

Focus Group: Focus Group edo eztabaida talde gidatuak teknika kualitatiboak dira, non dinamizatzaile baten laguntzaz pertsona batzuk gai baten inguruko iritzi, bizipen eta proposamenak elkarbanatzen dituzten. Helburua da ikuspegiak kontrastatzea, diskurtsoak azaleratzea eta ezagutza kolektiboa eraikitzea (Morgan, 1998). Eztabaidak ez dira galdeketa soilak, baizik eta elkarrizketa dinamikoak, non parte-hartzaileek elkarri eragiten dioten eta esperientzien arteko loturak sortzen diren.

Focus taldeak

Prozedura:	ordu bete pasatako talde-saioa, lan-prozesua kokatuz, jasotako aurreneko emaitzak partekatuz eta erronka eta gabezia nabariak seinalatzeko eztabaida-dinamika parte-hartzailea garatuz
Helburua:	AuzoEkinen prozesuaren barnean garatu beharreko saio irekietako osagaiak mahaigaineratu eta ibilaldi gidatuetaarako "puntu beroak" identifikatzeaz gain, helburu nagusia, egunerokotasunean eremuan eragiten duten erronka nagusienak berraztertzea eta plazaratzea da
Parte hartzea:	6 bizilagun (2 taldetan)
Data:	2025eko ekaina-uztaila

Tailer irekiak: Tailer irekiak parte-hartze zuzenerako espazio ireki eta dinamikoak dira, non herritarrek gai jakin bati buruzko iritzia eta proposamenak modu antolatuan eta kolaboratiboan partekatzen dituzten. Askotan erabiltzen dira diagnostiko partekatutako egiteko edo lehentasunak zehazteko. Paulo Freire-ren pedagogia dialogikoan oinarrituta, tailer hauek herritarren ahalduntzea eta esperientzia partekatua sustatzen dute (Freire, 1970), erabaki-prozesuetan parte hartzeko prestakuntza gisa.

Saio irekiak

Prozedura:	ordu eta erdiko saio irekia, aurreneko informazio eta emaitzen azalpena aurkeztuz, ahulgune eta indarguneak finkatuz eta identifikatutako erronkak berraztertuz, gai-blokeak antolatutako hausnarketa lan-dinamika baten (gallery walk), puntukako leheneste ariketa baten (dot-voting), talde eztabaida kolektibo baten eta adostasunen zehaztapenerako plenario baten bidez.
Helburua:	eremuko erronka nagusien azpimarra egitea, hausnarketa ariketa baten ondoren adostasunetik eraikitako lehentasunak markatzera iristeko
Parte hartzea:	14 bizilagun
Data:	2025eko uztaila

Deribak (ibilaldi gidatuak): Deriba edo ibilaldi gidatua partehartze teknika bat da non herritarrek espazio baten erabilera, oztopoak eta beharrak bertatik bertara aztertzen dituzten. "Ibilaldi-diagnostiko" moduan ezagutzen dira ere, eta espazioaren eguneroko esperientziatik abiatzen dira. Michel de Certearen arabera (1984), "ibiltzea" ez da mugimendu fisiko hutsa, baizik eta espazio publikoaren esanahi soziala eraikitzeko jardura aktiboa da. Deribek bizilagunen begirada aktibatzen dute, arkitekturak eta hirigintzak komunitatean duen eragina ikusaraziz.

Ibilaldi gidatuak

Prozedura:	aldez aurretik prestatutako ibilbide bati jarraiki, gerturatutako bizilagunekin (deialdi irekia) taldekako ibilbideak, partaideek seinalatutako guneetan geldialdiak gauzatu eta garrantziaren arabera sailkatze bisual kolektiboak garatuz (leheneste mapak) eta bukaerako kontraste eta finkapen ariketa amankomuna eginez
Helburua:	norbanakoen ikuspegiak aintzat hartuz, kolektiboki garrantzia duten aspektuen lehenespena gauzatzea eremu bakoitzeko bizi-espazioaren hobekuntzarako osagai nagusiak azalaraziz
Parte hartzea:	10 bizilagun (2 txandatan)
Data:	2025eko uztaila-iraila

3. EREMUAREN AURKEZPENA

3.1. Biztanleria eta bizitokia

LERROBURUAK	
	% 6,5 biztanleriaren beherakada orokortua azken hamarkadan, ia auzo guztietan eraginez
	2,66 pertsona etxebizitza bakoitzeko, bizikidetza-unitate erlatiboki zabalak irudikatuz
	47,5 urteko batezbesteko adina
	Biztanleriaren sexuaren araberrako banaketa orekatua
	Zahartze-prozesu sakonean murgildutako biztanleria egitura
	Kanpoko jatorriko biztanleriaren pisu erlatibo murrizta (biztanleriaren % 6,6a)
	Biztanleen 1/3ak lehen mailako ikasketak baino ez ditu
	Pertsona bakarreko edo 2 pertsonako bizikidetza-unitateen nagusitasuna (% 60)
	Gazteen emantzipazio tasa oso urria (% 8a)

Honako auzo hauek osatzen dute: Aldaba, Aldabatziki; Auzotxikia; Montezkue; Santa Lutzia; Bedaio, Olarrain-San Esteban eta Urkizu. Guztira 530 pertsona bizi dira eremuan dauden 199 etxebizitzatan banatuta. Hortaz, 2,66 pertsona daude etxebizitza bakoitzeko. Bedaio da biztanle gehien dituen auzoa, eta Urkizu gutxien dituen. Bedaion etxebizitza bakoitzeko 3,06 pertsona bizi dira. Santa Lutzian, aldiz, etxebizitza bakoitzeko 2,29 bizilagun baino ez daude erroldatuta.

Biztanleriaren bilakaerari dagokionez, eremuan erroldatutako pertsonen kopuruak behera egin du azken hamarkadan — % 6,5ko beherakada —. 2015ean 567 biztanle baziren, gaur egun 530 bizilagun dira. Aldaba da biztanleria irabazi duen auzo bakarra (% 11 igo da) eta Bedaiok eutsi egin dio biztanleriari; Landa eremuko gainerako auzoetan, biztanle gutxiago daude, batez ere Olarrain-San Estebanen; % 12 inguru jaitsiera islatuz.

Etxebizitza kopurua, pertsona egoiliarrak eta batezbesteko pertsona kopurua etxebizitza bakoitzeko, auzoen arabera (2025)

Landa auzoak	Etxebizitza huts potentzialak	Etxebizitzak	Biztanleria	Pertsona etxebizitzako
ALDABA	20	28	80	2,86
ALDABATXIKI	12	25	60	2,40
AUZOTXIKIA	21	26	63	2,42
MONTEZKUE	14	22	52	2,36
SANTA LUTZIA	14	24	55	2,29
BEDAIO	35	32	98	3,06
OLARRAIN-SANESTEBAN	14	31	89	2,87
URKIZU	8	11	33	3,00
GUZTIRA	138	199	530	2,66

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Landa eremuko biztanleriaren sexuaren arabera banaketari dagokionez, %49,2 emakumeak dira eta %50,8 gizonak; beraz, sexu-oreka egoera orokor bat ematen da. Auzo mailako berezitasunak begiratuz gero adierazgarria da, bereziki Aldabatxiki eta Urkizu auzoetan emakumeen presentzia zeharo nabarmenagoa izatea eta Auzotxikian, Santa Lutzian eta Montezkuen kontrako joera nagusitzea

Pertsonen banaketa ehunekotan, sexuaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Emakumeak	Gizonak
ALDABA	50,0	50,0
ALDABATXIKI	55,0	45,0
AUZOTXIKIA	42,9	57,1
MONTEZKUE	44,3	55,7
SANTA LUTZIA	43,6	56,4
BEDAIO	52,0	48,0
OLARRAIN-SANESTEBAN	52,8	47,2
URKIZU	54,5	45,5
GUZTIRA	49,2	50,8

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Adin-tarteen arabera biztanleriaren banaketari erreparatuz gero, egoiliarren ia ¼ak 24 urte edo gutxiago ditu; aitzitik, 64 urtetik gorakoak biztanleriaren herena baino (%30,6) zertxobait gutxiago dira, hala ere, gazteen gainera nagusituz. Biztanleen kontzentrazio handiena adierazten duen adin-taldea 35-54 urtekoena da (%22,5)..


Pertsonen banaketa ehunekotan, adin-tarteen eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	<=15	16-24	25-34	35-54	55-64	65-74	>=75	Adina, batez beste
ALDABA	13,8	5,0	13,8	28,8	10,0	16,3	12,5	47,00
ALDABATXIKI	5,0	10,0	10,0	11,7	11,7	23,3	28,3	57,00
AUZOTXIKIA	12,7	11,1	9,5	22,2	17,5	15,9	11,1	46,42
MONTEZKUE	17,3	0	13,5	25	19,2	17,3	7,7	46,69
SANTA LUTZIA	7,2	9,1	12,7	12,7	29,1	16,4	12,7	51,80
BEDAIO	15,3	12,2	6,1	21,4	13,3	23,5	8,2	46,44
OLARRAIN-SANESTEBAN	15,7	15,7	4,5	27,0	11,2	13,5	12,4	43,40
URKIZU	24,2	6,1	6,1	30,3	9,1	9,1	15,2	42,15
GUZTIRA	13,6	9,4	9,2	22,5	14,7	17,6	13,0	47,5

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Banaketa horren arabera, Landa auzoetan bizi den biztanleriaren batezbesteko adina 47,5 urtekoa da. Aldabatxikik (57 urte) dauka erroldatutako biztanleriari nagusia, Santa Lutzia ere esanguratsua izanik (52 urte), Urkizun (42 urte) eta Olarrain-San Estebanen (43 urte) jasotzen dira, berriz, batezbesteko gazteenak.

Biztanleriaren banaketa 2015ekoarekin alderatuz gero, ikus daiteke populazioak behera egiteaz gain zahartze-prozesu progresibo batean murgilduz doala, eta adin-piramidearen sabaiak pisu geroz eta handiagoa hartzen duela piramidearen zoruak erakusten duen joerarekin alderatuta. 2015eko batezbesteko adina 44 urtekoa zen, gaur egungo 47 urteko langatik dezente beherago.

Pertsonen banaketa ehunekotan, adin-tarteen eta auzoen arabera (% Hor.) (2015eko eta 2025eko errolda)


Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Landa eremuko biztanleriaren gehiengo zabala estatuan jaiotakoak dira. Hartara, landa auzoetan bizi diren biztanleen %6,6a baino ez da atzerriko jatorrikoa. Hauen artean, gehiengoa Europatik etorritakoak dira gehienak (%3,6). Azken hamarkadako bilakaerari dagokionez, 3,7 puntu igo da atzerriko jatorriko biztanleen pisu erlatiboa, 2015ean kanpoko jatorriko pertsonak biztanleria osoaren %2,9a baino ez ziren eta.

Pertsonen banaketa ehunekoetan, jatorriaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Hemengoak	Europakoak	Latinoamerika	Afrika
ALDABA	90,0	2,5	7,5	0,0
ALDABATXIKI	96,7	1,7	1,7	0,0
AUZOTXIKIA	92,1	1,6	0	6,3
MONTEZKUE	98,1	1,9	0	0
SANTA LUTZIA	98,2	1,8	0	0
BEDAIO	99,0	0,0	1,0	0,0
OLARRAIN-SANESTEBAN	85,4	12,4	0,0	2,2
URKIZU	87,9	6,1	6,1	0,0
GUZTIRA	93,4	3,6	1,9	1,1

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Ikasketa-mailaren ikuspegitik, landa auzoetan bizi den biztanleriaren %68,7ak batxilergoa edo handik beherako ikasketak ditu osatuta. Gainera, 1/3a baino gehiago (%35,3) ikasketa gabekoa edo gehienez lehen mailako ikasketaduna da. Bizilagunen 1/3ak (%31,1) lanbide heziketa profesionalak edo goi-mailako ikasketak ditu.

Pertsonen banaketa ehunekotan, ikasketa-mailaren eta auzoen arabera (% Hor.) (2025)

	Lehen mailakoak	Batxilergoa	LH	Goi Mailakoak	Ikasketarik gabe
ALDABA	30,4	33,3	11,6	24,6	0
ALDABATXIKI	30,4	41,1	14,3	14,3	0
AUZOTXIKIA	38,2	40	12,7	9,1	0
MONTEZKUE	41,9	30,2	11,6	14	0,2
SANTA LUTZIA	19,6	31,4	23,6	21,6	3,9
BEDAIO	39,5	24,7	23,5	11,1	1,2
OLARRAIN-SANESTEBAN	33,3	40,3	12,5	13,9	0
URKIZU	36	28	24	12	0
GUZTIRA	34,3	33,5	16,2	14,9	1

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Biztanleria egoiarraren murrizketa etxebizitza huts potentzialen kopurua aztertuz gero ere islatzen da. 2015ean 121 etxebizitza huts potentzial zeuden, eta 2025ean 138; inor erroldatuta ez duten etxebizitzaren kopurua % 14 handitu da, beraz. Erroldatutako pertsonarik gabeko etxebizitzaren gorakada Olarrain-San Estebanen erregistratzen da batez ere, 2015ean 8 etxebizitza potentzial huts izatetik 2025ean 14 izatera igaro baita. Urkizu 4 etxebizitza potentzial huts izatetik 8 izatera igaro da. Gainontzeko landa auzoetan, erroldatutako pertsonarik gabeko etxebizitzaren egungo zifrak 2015ean erregistratutakoen antzerakoak dira.

Eremuan, erroldatutako pertsonarik ez duten etxebizitzaren kopurua



Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Egoera hori islatzen da, halaber, bizikidetza-unitateen egungo osaera aztertuz gero. Gaur egun, bizikidetza-unitateen gehiengoa (%60) pertsona bakar batek edo bi pertsonak osatzen dute. Dena den, etxebizitzaren 1/4a baino gehiago (%28) hiru-lau pertsonen bizikidetza-unitate gisa azaltzen dira. Gainerako % 12a 4 pertsona baino gehiagoko bizikidetza-unitateek osatzen dute.

Bizikidetza-unitateen banaketa ehunekotan, pertsona kopuruaren eta gunearen arabera (% hor.)


	Bat-bi	Hiru-lau	Bost edo gehiago
ALDABA	57,1	21,4	21,4
ALDABATXIKI	60,0	32,0	8,0
AUZOTXIKIA	69,2	19,2	11,6
MONTEZKUE	60,9	34,8	4,3
SANTA LUTZIA	70,8	25	4,2
BEDAIO	53,1	25,0	21,9
OLARRAIN-SANESTEBAN	51,6	32,3	16,1
URKIZU	45,5	36,4	18,2
GUZTIRA	59,9	27,9	12,2

Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

Urkizun, Olarrain-San Estebanen eta Bedaion, zerbait ohikoagoa da 3 pertsonatik gorako bizikidetza-unitateak aurkitzea. Aldiz, joera orokorra indartzen dute Auzotxikiak eta Santa Lutziak, non bat-bi bizilaguneko bizikidetza-unitateak erabat nagusitzen diren.

Gazteen emantzipazio gaitasunari begiratuta, bereziki murrizta da eremuko 18 eta 34 urte arteko gazteen emantzipazio tasa. 72 pertsonatik soilik %8,3a bizi da bere kontura.

Emantzipazio tasa ehunekotan, adin tartearen arabera (% ber.) (2025)



Iturria Erroldako datuak. Tolosako Udala.

4. EREMUKO AZTERKETA-DIAGNOSTIKOA


4.1. Ekonomia, enplegua eta establezimenduak

■ Enplegua

LERROBURUAK


■	Biztanleria ez-aktiboaren nagusitasuna (% 52)
■	Enplegu betea duen langabeziarik gabeko eremua (% 1,2)
■	Langabetuen 1/4 baino zertxobait gehiago iraupen luzeko langabetuak dira
■	Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna (% 62), industriaren presentzia nabarmenarekin (% 29)
■	Autoenpleguaren garrantzia erlatibo nabarmena (1/4a)
■	Udalerria (emakumeak) eta eskualdea (eskualdea) lan-eremu natural gisa
■	Kontziliazio neurrien erabilera oso mugatua (% 11). Ohikoagoak emakumeen artean

Elkarrizketatutakoen % 52 biztanleria ez-aktiboa da: gehienak erretiratuak dira (%55,6), ikasten ari direnen kopurua ere esanguratsua izanik (%33,3). Gainerako % 48a biztanleria aktiboa da, baina langabezian dagoen biztanleria elkarrizketatutako biztanleriaren % 1,2ra baino ez da iristen.




Langabeen kolektiboaren barnean, % 72ak urtebete baino gutxiago darama lanik gabe eta % 28k bi urtetik gora.

Langabeen langabezia-denbora (hilabeteak) (% Ber.)




Biztanleria landunaren ezaugarriei dagokienez, nagusiki zerbitzuen sektorea gailentzen da. Biztanleria landunaren % 62 zerbitzuetan aritzen da; ondoren industria dago, % 29ekin, eta % 5 inguru ari dira bai eraikuntzan zein lehen sektorean. Sexuaren arabera, aldeak argiak dira: emakumeen artean, 10 langiletik 8 zerbitzuen sektorean aritzen dira. Gizonek sektore-oreka handiagoa islatzen dute, industrian eta zerbitzuen sektorean lan eginez, batik bat (% 45ak eta % 41ak, hurrenez hurren)..

Biztanleria okupatuaren banaketa, sexuaren eta jarduera-sektorearen arabera (% Ber.)



Jardueren ezaugarrietan sakonduz, industria de sektorerik garrantzitsuenak (%29), merkataritza eta zerbitzu pertsonalen (%12,6) eta zaintza eta gizarte-zerbitzuak (%12,3) sektoreen aurretik. Batez ere zaintzan eta gizarte-zerbitzuetan (%24), merkataritzan eta zerbitzu pertsonaletan (%20) eta ostalaritzan (%12) aritzen dira emakumeak. Zerbitzuen sektorearen barruan, gizonezkoen lan-adar nagusia garraioarekin eta logistikarekin lotutakoa da.


Landunen banaketa, jarduera-adarraren arabera (% Ber.)



Langileen % 68k sektore pribaturako egiten du, baina autoenpleguaren presentzia esanguratsua da Landa auzoetako biztanleria okupatuaren artean, non 4 langiletik batek bere negozioa duen. Sektore publikoak ez du pisu adierazgarririk landa eremuko langileen artean (%5). Landunen 8,4ak baino ez du aldi baterako kontratua.


Bi sexuen kasuan sektore pribatuak kontzentratzen duen arren okupazioaren zatirik handiena, baina badira ñabardura batzuk. Sektore publikoak pisu handiagoa du emakumeen artean (% 6,8). Gizonen artean, ordea, autoenplegu maila nabarmenagoa da (% 27,9).

Landunen banaketa, kontratazio motaren arabera (% Ber.)



Enpleguaren lurralde-banaketari dagokionez, landunen zati garrantzitsu batek Tolosan bertan egiten du lan (% 43,5). Biztanleria landunaren ia heren bat (% 31,8) eskualdean bertan ari da lanean, eta laurdena Gipuzkoan. Sexuen araberako bereizketa nabarmena da. Emakumeen 2/3 Tolosan bertan ari dira lanean. Gizonezkoen artean, berriz, bereziki Tolosaldeko beste udalerri batzuetara joatea da ohikoena (% 54,8). Gizonezkoek industrian eta emakumeek zerbitzuetan duten presentzia nabarmenagoen ondorio izan daiteke hau.

Biztanleria okupatuaren banaketa, lantokiaren arabera (%Ber.)



Landunen artean % 10,8k adierazten dute lana uztartzeko neurriren bat baliatzen dutela: % 8,8ak laneko ordutegi-malgutasuna erabiltzen du, eta % 7,4ak lanaldi murriztuak edo beren egoerara egokituak. Emakumeen artean, ehuneko horiek bikoiztu egiten dira, enplegua duten emakumeen % 14ra iritsiz.

Ekonomia

LERROBURUAK


Gehiengo zabalak ez du hilabete bukaerara iristeko aparteko zailtasunik (bizilagunen **%95ak**)

Bizikidetza-unitateen diru-sarrerara garbien egokitasuna (**%40ak** hilean 4.000 €-tik gora)

Pertsonen **2/3ak** ez du inolako prestazio edo/eta dirulaguntzarik jasotzen


Inkestatutako pertsonen % 5ak soilik adierazi du hilabete amaierara iristeko zailtasunen bat duela. Eremuko bizilagunen 2/3ek hilabete amaierara erraz iristeko gaitasuna dutela adierazten dute, eta gainontzekoek nahiko erraz.

Hilabete amaierara iristeko gaitasunaren banaketa ehunekotan. (% ber.)




Egoera horretan, bizikidetza-unitateen % 84,5 inguruk adierazi du hilean 2.000 eurotik gorako diru-sarrerara garbiak dituztela; are gehiago, ia %40k adierazi du hileko 4.000 euroko diru-sarrerara garbiak gainditzen dituela.

Bizikidetza-unitateen hileko diru-sarrerara garbien banaketa ehunekotan (% ber.)



Aurreko egoeraren erakusgarri, prestazio edo laguntzaren bat jasotzea ere ez da ohikoena landa auzoetan bizi diren pertsonen kasuan. Pertsonen % 66k ez du inolako dirulaguntzarik jasotzen. Gainera, jasotzen diren prestazioen gehiengoa pentsioei lotutako diru-sarrerekin dute zerikusia (prestazio edo laguntza ekonomikoren bat jasotzen duten pertsonen %88). Bestelako dirulaguntzen artean mendekotasunagatik diru-sarrerak eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ageri dira.

Pertsonen banaketa ehunekotan, prestazio edota laguntza ekonomikoren bat jasotzen duten ala ez kontuan hartuta (% ber.)




■ Establezimenduak

Enpresa-establezimenduen kopurua egonkor mantendu da 2015-2024 denbora-tartean. Negozioen gehiengoa lehen sektorekoak eta merkataritza eta ostalaritza sektoreetakoak dira.


Establezimenduek sortutako enpleguen kopuruak hazkunde esanguratsua izan du (%34). Eredu honetako enplegu-sortzaile nagusia Panelfisa enpresa da, 100 lanpostu baino gehiago dituen.

Landa auzoak eremuan sortutako establezimenduak eta enpleguak. 2015etik 2024ra bitarteko aldia



Jarduera-adarren arabera, establezimendu kopurua honela banatuta dago:

Establezimenduen banaketa jarduera-adarraren arabera 2024an




DIRAE iturria. Jarduera ekonomikoaren direktorioa Eustat

4.2. Etxebizitza

LERROBURUAK	
	Biztanleriaren %85ak gutxienez 5 urte daramatza eremuan bizitzen
	Bizikidetza-unitateen %7ak baino ez du gehiegizko zama bideratzen etxebizitza gastuetara
	Biztanleen gehiengo zabala jabetzan duen etxebizitza batean bizi da
	Etxebizitzaren egoera orokorra oso ona da


Landa auzoetan bizi diren pertsonen %57,9ak bizitza osoa darama bertan bizitzen. Kopuru hau, % 85,1era areagotzen da baldin eta eremuan orain dela 5 urte baino gehiagotik bizi diren pertsonak gehitzen bazaizkio. Hortaz, landa auzoetako bizilagunen zatirik garrantzitsuena aspalditik bizi da bertan. Landa eremuko biztanleria osoaren % 14,9a baino ez da orain dela gutxi (azken 5 urteetan) etorri berria.

Biztanleen banaketa ehunekotan, auzoan bizitzen daramaten denboraren arabera (% ber.)




Adierazgarria da etxebizitzari lotutako gastuei (hipoteka, alokairua, gasa, argia, ura eta abar) aurre egitera bideratzen den etxebizitzaren gastua, diru-sarreraren %10 baino gutxiago dela eremuko biztanleriaren gehiengoarentzako (%84). Bizikidetza-unitateen %6,7ak baino ez du gehiegizko esfortzu ekonomikoa (diru-sarreraren %33tik gora) bideratzen etxebizitza gastuei aurre egiteko.

Bizikidetza-unitateak, etxebizitzara eta horniduretara bideratutako diru-sarreraren arabera (% ber.)



Aurreko egoera horrekin lotuta, inkestatutako pertsonen ia % 86a jada ordaindutako jabetzadun etxebizitza batean bizi da. Honek harreman zuzena du, etxebizitza gastuetara bideratutako diru-sarrera kopuru mugatuarekin eta hilabete bukaerara erraztasunez iristeko gaitasunarekin. Hipoteka ordaintzeke duen biztanleria % 7ra iristen da, eta alokairuan daudenak % 3ra iristen dira.

Etxebizitzaren banaketa, edukitze-erregimenaren arabera (% ber.)



Landa auzoetako etxebizitzaren % 94 oso egoera onean daude egoiliarren arabera, eta etxebizitzaren % 5ak baino ez lituzke beharko eraberritze partzialak.


4.3. Ingurumena, hiri-espazioa eta garraioa- mugikortasuna

LERROBURUAK	
	Ingurune eta berdeguneekiko balorazio ezkorra (biztanleen % 52a ez dago pozik)
	Hiri-espazio osatzen duten elementuekiko ikuspegi ezkorragoa (biztanleen % 62a atsekabetuta)
	Garraio eta mugikortasunarekiko ikuspegi bereziki ezkorra (biztanleen % 68a ren nahigabea)
	Ibilgailu pribatua jarduera guztietarako mugikortasun baliabide nagusi gisa

Landa auzoko biztanle elkarrizketatuek inguruneari eta inguruko berdeguneei buruz egiten duten balorazioa (lorategiak, zuhaiztiak, plazak eta parkeak, izurriteen kontrola, zaborren bilketa, etab.) ez da oso ona (biztanleen %52ak bere nahigabea adierazten du). 1etik 4ra bitarteko eskala batean, non 1 erabateko nahigabea den, eta 4 guztizko gogobetetzea, balorazioa 2,37ra iristen da batez beste. Nagusiki, emakumeak eta 35 eta 54 urte bitarteko pertsonak dira adierazle honekiko kritikoenak.


Are kritikoagoa da biztanleria egoiliarra, eremuko hiri-espazioari buruz egiten duten balorazioarekin: jolas-eremuak, espaloien egoera, irisgarritasuna, oinezkoen pasabideak, hiri-altzarien egoera eta abar. Balio-eskala berean, 2,24ra iristen da eta atsekabetuen kopurua, biztanleriaren %62ko mailara iristen da. 55 eta 64 urte bitarteko pertsonak dira kritikoenak, 1,98ko batez besteko balorazioa ematen baitute.

Azkenik, landa eremuko pertsonak garraioari eta mugikortasunari buruz duten balorazioari dagokionez: trafikoaren egoera, aparkalekuak, garraio publikoa, etab.; balorazioa 2koa da, batez beste. Landa eremuko bizilagunen 2/3 (%67,9) ez daude ados beraien auzoko garraio eta mugikortasunaren egoerarekin. Are gehiago, biztanleen laurdena (%28,5) zeharo atsekabetuta dago gai honekin.



Inolako zalantzarik gabe, ibilgailu pribatua da garraiobide nagusia edozein jarduera egiteko; erosketak, aisialdia, kultura, gizarte-harremanak mantentzea, osasun-zentrora, lanera, ikastetxeetara eta abarretara joatea; jarduera edozein dela ere, herritarren % 92k baino gehiagok erabiltzen du ibilgailu pribatua; are gehiago, % 100era hurbiltzen da erosketak egiteko eta osasun-zentroetara joateko. Oinez burututako desplazamenduei dagokienez, gizarte harremanak eta kirol, aisialdi eta kultura jarduerak gailentzen dira.

Erabilitako garraiobide nagusia, egindako jardueren arabera (% hor.)




4.4. Bizitza eta komunitate-bizikidetza

Euskararen erabilera

Landa eremuko biztanleen gehiengo zabala euskaraz bizi da (%80a). Sexuen arteko desberdintasuna nahiko nabarmena da euskararen eguneroko erabilerari dagokionez; 13 puntu portzentualeko aldea dago gizonen eta emakumeen artean. Bestalde, biztanleen % 10ak ez du euskararen inolako ezagutzarik. Kanpoko jatorriko pertsonen presentzia murrizta izan arren, hauek egongo lirateke nagusiki ezagutza ezaren estatistikaren goratzearen atzean.

Pertsonen banaketa, sexuaren eta euskararen gaineko ezagutzaren arabera (% ber.)



Osasuna, bizi-ohiturak eta zainketak

LERROBURUAK


Bizitzako alderdiei (osasuna, elikadura, ongizate emozionala) buruzko asebetetze maila altua

Genero arrakala zaintzari lotutako lanei dagokienean, arduren zama emakumeengan geratuz

Etxeko lanak dedikazio gehieneko esparru gisa

Alderdi pertsonalen ikuspegitik; hala nola osasun-egoera, elikadura-ohiturak, ongizate emozional eta soziala, eta bizitzarekiko gogobetetzea: bizilagunen gehiengoak gogobetetze-maila altua adierazten du. Adierazle guzti hauetan, batez beste, 3 puntutik gorako gogobetetze-maila jaso da, leko balioespena oso txarra eta 4koa oso ona izanik.

Egindako balorazioa bizitzaren alderdien arabera (% Hor.)




Balorazio orokorra positiboa bada ere, osasun-egoerari dagokionez, biztanleen % 10,4k adierazi du osasun egoera txarra edo oso txarra duela. Elikadurari, ongizate emozionalari eta, bereziki, bizitzarekiko gogobetetze-maila orokorrari dagokionez, biztanleen ikuspegia baikorragoa da, oso gutxi izanik, asebetetze maila urria adierazten duten biztanleak. Ez dago alderik emandako balorazioetan, ez sexuaren arabera, ez adin-tarteen arabera.

Zaintzari dagokionez, biztanleriaren % 75ek adierazi du denbora asko ematen duela etxeko lanetan, baita gehiegi ere – emakumeen kasuan gehiegizko dedikazioaren kopurua %85era iristen da -. Landa auzoetako biztanleriaren % 28ari eragiten dio adingabeen zaintzak. Gainera, biztanleriaren %14,6ak denbora asko bideratzen du ardura horretara. Antzerakoa da, baita ere, adineko zaintza ardurak hartzen dituen biztanleriaren kopurua. Kasu honetan, pertsonen %19,1ak denbora asko ematen du nagusien zaintzan. Mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzak ere landa eremuetako biztanleria osoaren laurden bati (%25,8) eragiten dio. Lan eremuko bizilagunen %19,4ak denbora asko eskaintzen dio eginkizun horri.

Aurreko zeregin guzti hauetan, emakumeen dedikazioa nabarmenagoa da, zaintza lanen ardura hartzen duten emakumeen kopurua handiagoa izanik eta, bereziki, erantzukizun horietara gizonetako baino denbora gehiago bideratuz.

Landa, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko jardueretan emandako denbora (% hor.)



Bizikidetza eta komunitatea

LERROBURUAK

Inplikazio maila altua auzoko ekimen eta jardueretan, bereziki gizonezkoen artean


Erdibideko auzoarekiko atxikimendu maila (**%53ak** auzo-sentimendu nabaria dauka)

Eremuko giro-sozialaren balorazio baikorra (**% 84**arentzat giroa ona edo oso ona)

Erdipurdiko gogobetetze maila auzoaren egoera orokorrarekiko


Landa auzoen kasuan nahiko adierazgarria da eremuko ekimen eta jardueretan ematen den inplikazio maila. 10 pertsonatik 4k adierazten dute auzoko elkarte, talde edo ekimenetan aktiboki parte hartzen dutela; hala ere, emakumeen artean parte-hartzea % 28koa baino ez da, plaza publikoari dagozkion eginkizun hauetan gizonak nagusituz. Partaidetza-maila horiek bat datoz, landa eremuko bizilagunek landa auzoetan bizitzen daramaten denbora tarte luzeekin. .

Elkarteetan eta auzoko ekimenetan parte hartzea ala ez, sexuaren arabera (% Ber.)




Auzo-atxikimenduaren fenomenoari begiratuz gero, landa auzoetako biztanleriaren erdia baino gehiagok (%53) auzokoa izatearen sentimendu errotua edo oso errotua dauka. Hala ere, deigarria gerta daiteke biztanleriaren 1/5a baino gehiagok (%22,1) auzoarekiko atxikimendu maila urria edo nulua duela jakiteak.

Landa auzokoa izatearen sentimendua (%Ber.)




Komunitate-sentimendu horrek eragin positiboa izan dezake, bizilagunek auzoko giroari sozialari buruz egiten duten balorazioari dagokionez; izan ere, bertan bizi direnen % 84ak adierazi du ona edo oso ona dela.

Eremuko giro sozialaren eta bizikidetzaren balorazioa (% Ber.)



Hala ere, auzoaren egoera orokorrarekiko gogobetetze-maila erdipurdikoa da, eta 2,9ko batez bestekora iristen da letik 5era bitarteko eskala batean, non 1 gutxi den eta 5 erabatekoa. Auzotarrek auzoko hainbat elementuri (ingurua, hiri-espazioa, garraioa eta mugikortasuna...) buruz duten asebetetze maila eskasarekin bat egiten du iritzi orokortu ezkor honek. Alde horretatik, gehiago dira, auzoaren egoerarekiko kritiko azaltzen direnak (%31,8), konforme daudenak baino (%23,7).

Eremuaren egoera orokorrarekiko gogobetetasuna (% Ber.)




4.5. Gobernantza eta zerbitzuak

LERROBURUAK	
	Oinarrizko zerbitzu eta produktu eskuragarritasunaren eta ekipamenduen balorazio erabat txarra
	Eremuak, adin-talde desberdinetako pertsonentzat eskaintzen dituen aukerekiko desadostasuna
	Gobernantzari lotutako adierazleekiko ikuspegi zeharo ezkorrak
	Udal teknikarien lana ondoen baloratzen den adierazlea (erdipurdiko puntuazioarekin)
	Auzoari emandako arreta orokorra da okerren baloratzen den aspektua

Landa eremuko auzoetan erabateko atsekabea adierazten da oinarrizko produktuak eta funtsezko zerbitzuak eskuratzeko aukera eta gaitasunei dagokionez. Balorazioa ez da batere ona; izan ere, biztanleen %91 eta %92k, hurrenez hurren, zeharo gaitzesten dute egun dagokien egoera. Asegabetasuna orokorra bada ere, emakumeen artean are handiagoa da.


Frontoi, eliza, sozietate eta antzeko auzoetako ekipamendu kolektiboen egoerari emandako balioespenari dagokionez, gogobetetze-maila ere (hain nabarmena ez izan arren) zeharo ezkorra da. 1etik 4ra arteko eskalan, batez bestekoa ez da 2 puntura iristen, zehazki, 1,77koa da. Auzotarren 1/4a baino ez dago gustura auzoko ekipamenduen egoerarekin. Ordea, biztanleriaren ia erdiak (%48ak), erabateko desadostasuna erakusten du auzi horri dagokionez.

Asebetetze-maila eremuak eskaintzen dituen aukerekiko, jardueren arabera (% Ber.)



Auzo horiek hainbat pertsona-talderentzat eskaintzen dituzten aukeretan pentsatuz: adinekoak, helduak, gazteak, adingabeak, baita haurtxoak ere; gogobetetze-eza oso nabarmena da; elkarriketatutako biztanleriaren % 90ek baino gehiagok gogobetetze-ezaren mailarik handiena adierazten dute. Adin-talde desberdinentzat auzoak eskaintzen dituen aukerekiko atsekabe orokortua are gehiago azaleratzen da emakumeek emandako balorazioetan (ehuneko 6 puntu inguru gehiago).

Eremuak eskaintzen dituen aukerei buruzko gogobetetzearen balorazioa, pertsonen kolektiboen arabera (% Hor.)




Tolosako Udalaren eta auzoen artean komunikazioaren arloan izandako harremanei buruzko balorazioari dagokionez; administrazio-gaiak kudeatzeko eta izapidetzeko erraztasunari dagokionez; egindako eskakizunen harira lortutako erantzunari dagokionez; alkatearen eta udaleko gainerako ordezkari politikoen zereginari dagokionez; balorazioa ez da inondik inora ere positiboa. Are gehiago, erdibideko onarpen-mailara ere ez da iristen.

Tolosako Udaleko langileek emandako tratua da irudi orokor horren baitan, gutxiagatik bada ere, erdibideko balorazioa jasotzen duen alderdi bakarra, 2,43ko batez bestekoa lortu baitu 1etik 4ra bitarteko eskalan; izan ere, biztanleriaren % 56k era nahiko positiboan baloratzen du Udal langileen aldetik jasotako begirunea.

Ondoren, eta antzerako balorazioarekin -2 puntu gutxi gorabehera-, udal-izapideak edo -kudeaketak egiteko erraztasuna, eta kargu politikodun pertsonen egindako lanaren balorazioa datoz. Tolosako Udalaren zereginari buruz baloratu diren beste 3 gaiek 2 puntutik beherako balorazio oso ezkorra jaso dute, 1,8 puntu inguruko batez bestekoak erakutsiz. Puntuazio handienetik txikienera, honako hauek dira: udalak auzo horien auzotarrekin duen komunikazioa (1,88); planteatutako kexei emandako erantzunak (1,87) eta orokorrean Tolosako Udalak auzoari eskainitako arreta (1,83).

Landa auzoetan bizi diren biztanleen gogobetetzea, Tolosako Udalarekin egindako jardueren arabera. (% hor.). Batez bestekoak



5. DATU KUALITATIBOAK

5.1. Elkarrizketa sakonak

Aldaba:

- Udalaren aldetik utzikeria sentsazioa antzematen du auzoak. Komunikazioa badago, baina erantzun eraginkorrik ez. Landa eremurako teknikari espezifikoa bat izendatzea aukera gisa adierazten da.
- Auzo elkartearen funtzionamendu propioa ahalbidetzeko oztopo burokratikoak arintzea ezinbestekoa da, betekizun administratiboak malgutuz.
- Dirulaguntza eta fakturazioak garaiz eta erraztasunez egin ahal izateko bitartekoak jarri beharko lirateke.
- Auzo mailako WhatsAppa dute komunikazio bitarteko gisa. Elkartean egitura bat dago arduren banaketarekin.
- Elkarrekin funtzionatzen du auzoko elkargune nagusi gisa. Bategite gune horren eta burutzen dituen ekimenen biziraupena mantendu ahal izatea da gakoa. Hitzarmena nola dagoen argitzeko beharra dago.
- Funtsezkoa da bertakoak antolatzen jarraitzea eta Udalarekiko elkarlanerako bideak sortzea. Auzolanean aritzeko aurrebaldintzak sortu behar dira, horrek ere laguntzen baitu auzo mailako harremanak mantentzen.
- Azpiegiturei dagokionez, etxe kanpoko argiteria, zoruen konponketa edo estolderiaren etorrera ageri dira, besteak beste.
- Auzoa bizirik mantentzeko etorkizunean ere jendea bertan bizitzeko baldintzak ematea beharrezkoa da. Behar bada herrigunean etxebizitza proiektuen bat.
- Landa auzo desberdinen artean kolektibizatzeke zerbitzu amankomunak eskaintzeko berariazko zerbitzu bat sortzea baloratu daiteke.

Aldaba-Txiki:

- Auzo gisa ez dute amankomunean eragiten. Ez dago Auzotarren arteko interakzio kolektiborik. Bakoitzak bere aldetik egiten du.
- Udalarekiko hartu-emanik ez dago, batzordea desegin zenetik eta ez dute eskakizun amankomunik egiten.
- Udalaren aldetik utzita dagoen sentsazioa dago. Kontuan izanak sentitu nahi dira eta AuzoEkinen horretarako balio dezake.
- Ezinbestekoa da Auzo Ekin baliatzea auzotarren arteko saretzea sendotzeko eta auzo gisa antolatzeke.
- Auzo izaera badago eta era organikoan ekintzaren bat ere burutzen da (Santa Ageda eta Gabonak). Hauek baliatu auzogintzarako erreminta gisa.
- Eskuragarri izan ditzaketen zerbitzu eta baliabideak ere ez dituzte ezagutzen. Eskuragarri dauden aukeren eta zerbitzuen komunikazioa egin ahalko litzateke.
- Gerora begira aurreikusi daiteke zahartze prozesuak mendekotasun problematika bat sortzea. Aldez aurretik landu beharko litzateke, prest egoteko.

- Auzo izaeraren zati diren herri bideak berreskuratzeko beharra azpimarratzen da.
- Auzoaren sarrerako etxebizitzetara jende asko etorri da eta aparkaleku bat beharko lukete. Azpiko gurutze bidea ere arriskutsua izan daiteke.
- Herri urekiko konexioa eta saneamendua kolektorera lotzeko geratzen den zatia bukatzeari ere garrantzia eman ahalko litzaioke.

Auzotxikia-Urkizu:

- Auzotxikia sakabanatuta dago eta ez du bere horretan herrigunerik. Beheko aldeak Olarrainerako joera dauka eta goikoak Urkizurekin harreman estuagoa.
- 2010ean elkarteak sortu zen Urkizun eta inguruko dinamizazio gune bezala funtzionatzen du.
- Elkartea da Udalarekiko harremanak mantentzearen erantzukizuna duena eta komunikazioa zuzena eta eraginkorra da.
- Auzoa antolatuta dago egitura horren barruan eta auzotarren arteko ezagutza eta harremanak indartzeko balio du.
- Gazteek ere erakusten dute inplikazioa ekimenak aurrera eramateko garaian.
- Garai bateko auzolanik ez dagoen arren, elkarteak agendatutako ekimenez gain, hilean behin auzotarren arteko hamaiketako osatzen dute. Berezko esperientzia informalaren balioaren erakusgarri.
- Lanei dagokienez inportanteena herri bideak mantentzea da. Betiko Ernio bidea eta pasozko bideak ere zaindu eta balioan jarri beharko lirateke.
- Etorkizunean bertan bizitzen jarraitzea nahi duten gazteak bizitoki bat izatea da erronketako bat. Erabilera gabe dagoen elizaren abadetxea berreskuratuz?
- Bestelako hobekuntza beharren artean egon daitezke, errepidea zabaltzea, ur-gabeziaren gaiari jarraipena egitea, tabernaren berririkiera sustatzea.

Bedaio:

- Udalaren aldetik auzoa utzita duten sententzioa nabarmentzen da. Kasu egiten ez dieten sentipen bat. Hainbat lanketa egin arren, ez da aldaketarik somatzen.
- Administrazioarekiko burokrasia arindu, komunikazioa hobetu eta elkarlan esparru eraginkor bat osatzea ezinbestekoa da.
- Bedaiok badu herrigune bat eta bertan elkarteak da bizilagunek bategiteko gunea.
- Auzo mailan badago atxikimendua eta inplikazioa. Elkarlearen baitan lantalde desberdinak daude antolatuta erantzukizun jakinekin. Horrela bideratzen dira ekimen desberdinak. Lantaldeen erreplikagarritasuna aztertu beste auzoentzat.
- Herrigunea urbanistikoki garatzea eta osatzea da erronka nagusietako bat: frontoia eta bere sarbidea, elkarreko irisgarritasuna, komun publikoa, aparkalekuak, jatetxea, sarea eta Internet...

- Bertakoei bertan bizitzeko aukera emango liekeen etxebizitza proiekturen bat gauzatzea zen gakoa. Jada beranduegi izan daiteke, gazte zirenak joanak baitira.
- Orain hutsune bat dago 18-45 adin tartean. Honek eragina dauka auzogintzan eta gerora begirako ikuspegian.
- Tolosarekiko distantzia bera handicap bat izan daiteke. Funtzionalki ere harreman gehiago du beste Udal batzuekin, izan Amezketeta edo Alegi.
- Amezketarekin bat egiteko eskaerak zentzu praktiko bat du. Aukera gehiago izan ahalko lukete landa eremuko udalerriei zuzendutako finantzaketa jasotzeko, edota Aralarreko lur/zelai amankomunak erabiltzeko, besteak beste.
- Badira hainbat eraikin publiko eta pribatu egoera okerrean daudenak, arriskua sortuz. Honekin lotuta, ondarea zaindu eta balioan jartzeko beharra azpimarratzen da (beheko eskola, jatetxea, herri bideak...).

Olarrain:

- Olarrain hiri eta landa arteko erdibidea da. Trenak zatitzen ditu bi espazioak. Gainera, ez du berezko izaera bat izan. San Esteban eta Auzotxikiaren parte zen.
- Olarrain bera husten ari da. Hainbat etxebizitza huts daude.
- Elkartarekin pisua hartu du guneak, Olarraineko, Auzotxikiko azpiko aldeko eta Aldaba Txikiko bizilagunen arteko elkargunea bilakatuz. Behar bada, aproposa izan daiteke, auzoen distribuzio berri bat egiteko baliatzea Auzo Ekin.
- Elkartek antolatzen ditu gune hauetako bizilagunen elkarbizitza eta auzo ekimenak. Zuzendaritza batzordeaz gain, batzorde paralelo bat sortzeko saiakeretan dabilta, ekitaldi kulturalak sortzeko.
- Udalaren aldetik utzita dagoen sentsazioa azaltzen da. Erabakiak aldebakartasunez hartzen direla, auzoan kontsultatu gabe. "Auzoa duintasunez tratatzea" eskatzen da.
- Gaur egun ez da existitzen udalarekiko harremanetarako interlokuzio marko bat.
- Mugikortasuna eta garraioa arazo bat dira: Olarrainek ez du auzo-taxi zerbitzua eta bus urbanoa ere ez da iristen; bidegorria ez dago osatuta; jendea asko pasioan ibiltzeko lekua izanik, espaloirik ez dago tarte batzuetan; zenbait bidegurutze arriskutsuak dira; Bentaundiko aparkalekua...
- Publikoak diren eraikin edo espazio hutsei erabilera ematea premiazkoa da. Elkartaren azpiko aretoa baliatu beharko litzateke, erabilera desberdinak hartzeko. Ez bakarrik auzoari begirakoak Tolosa guztiarentzako baino (gertu).
- Ingurua txukun mantentzeko beharra azpimarratzen da. Sasiak garbitzea, erreka zaintzea, ondarea berreskuratzea (akueduktoa), auzoa biltegi ez bilakatzea edo hau kudeatzea (Tolosako karrozak...).
- Aurrera begira, hirigintza proiektu sakon bat egitea aukera bat izan daiteke auzoaren berroneratzea gauzatzeko.

5.2. Talde eragileen sorrera

Saioa Udal teknikariarekin hasi zen. Honek AuzoEkin prozesuaren helburuak gogoratu zituen, tokiko garapen estrategiko eta parte-hartzailea sustatzea helburu nagusi izanik. Prozesuaren egungo fasea azaldu zen, hau da, diagnosi partekatu bat osatzeko unea, eta baita hurrengo urratsak ere: estrategiak adostu eta abian jartzea. Ondoren, dinamizatzaileek saioaren egitura aurkeztu zuten, lau mahaitan banatutako dinamika baten bidez garatuz: Auzotxiki-Urkizu, Aldabatziki, Aldaba eta Bedaio-Olarrain.

Txekin dinamika: aurkezpena eta espektatibak partekatzea

Parte-hartzaileei landa-eremua nola definituko luketen galdetu zitzaien. Ekarpenen artean aipatu ziren landa-eremua periferia gisa ikustea, naturarekin lotura estua duen eremu gisa, zabaldua dagoen espazio gisa eta baserriaren sinboloa izatea. Halaber, lasaitasuna aipatu zen elementu bereizgarri gisa. Eremuarekiko duten konpromisoa ere azaldu zuten, jatorriarekin, jarraipenarekin eta etorkizunarekin lotua. Parte-hartzaile askok identitatearen transmisioa eta herentziaren mantenua aipatu zuten, auzoa ez hiltzeko premia gisa ulertuz. Konpromiso pertsonal eta komunitario horrek prozesuarekiko motibazio sendoa agerian utzi zuen.

Talde eta eragileen identifikazioa eta sailkapena

Eremu bakoitzeko talde eta eragile esanguratsuen identifikazioa egin zen, hiru ardatzen arabera: ehun soziala eta biztanleria, ehun instituzionala eta ehun ekonomikoa. Ehun sozialean, auzo elkarteak, eliz komunitateak, kultur elkarteak, eta tokiko bizilagun esanguratsuak identifikatu ziren. Ehun instituzionalean, taxi zerbitzua, eskola autobusa, Aldundia, Renfe eta Abiadura Handiko Trena agertu ziren. Ehun ekonomikoari dagokionez, tokiko zerbitzuen hornitzaileak azpimarratu ziren: ogi banatzaileak, arrantzaleak, okinak, gasolindegia, tabernak eta elikadura-zerbitzuak.

Ondoren, eragile horiek inplikazio mailaren arabera sailkatu ziren. Inplikazio handia zutenen artean zeuden taxi zerbitzua, eskola autobusa, kultur elkarteak, eta auzotar batzuk. Inplikazio ertaina zutenak izan ziren beste hainbat auzotar, elkarte eta zerbitzu, hala nola, Sagardotegiak, Okindegi ekologikoak eta eliza komisiokoak. Inplikazio txikia zutenak, berriz, zenbait banaketa zerbitzu, udal zerbitzu batzuk eta Renfe bezalako azpiegitura-eragileak izan ziren. Sailkapen honek eremu bakoitzean parte-hartze eta eragin potentziala duten eragileak hobeto kokatzeko aukera eman zuen.

■ Indargune eta mehatxuen identifikazioa

Taldeek euren auzo edo eremuko indargune eta mehatxu nagusiak aztertu zituzten. Mehatxuen artean errepide estuak, etxebizitza planen falta, komunikazio zailtasunak Udalarekin, zarata eta kutsadura (batez ere N-1 inguruan), azpiegitura falta (bidegorriak, irisgarritasuna, herri bideen egoera...), eta biztanleria zahartzea edo errelebo faltaren inguruko kezkak nabarmendu ziren. Gainera, garraio publikoaren gabezia eta herri-guneko urbanizazio faltak ere salatu ziren. Horri lotuta, diru-laguntzen atzerapena eta Udalaren aldetik kontsiderazio eza aipatu ziren hainbat auzotatik.

Indargune gisa aipatu ziren auzotar batzuen inplikazioa, kultur elkarrekin antolatutako ekintzak, inguruko mendiak eta ibilbideak, eta WhatsApp taldeak komunikaziorako. Tolosarekiko gertutasuna eta auzoen arteko harreman aukerak ere indargune gisa azpimarratu ziren. Proposamen zehatzak ere agertu ziren, hala nola ur sarea ezartzea, N-1 inguruan kutsaduraren aurkako pantaila bat jartzea, eta auzo-elkarrekin bidez kultura ekintzak sendotzea.

■ Parte-hartze espazio eta kanalak

Parte-hartzea ahalbidetzen duten espazio eta komunikazio kanalak identifikatu ziren. Komunikazio kanal gisa ahoz ahokoa eta WhatsApp taldeak dira baliabide nagusiak, baita informazio panelak eta email bidezko harremanak ere. Auzo batzuetan webgune eta Instagram kontuak ere erabiltzen dira. Parte-hartze espazio gisa, auzo elkarrekin, festak, ekintza kulturalak, mendi martxak, eliz ekitaldiak eta frontoia aipatu ziren. Ekimenak ezberdinak izan arren, dinamismo handiko sare komunitarioa ikusi da auzo askotan, batez ere jaiak, auzo-bazkariak eta hileroko hamaiketako bueltan.

Halaber, dokumentazio gisa erabilgarri dauden baliabide batzuk ere aipatu ziren: etxebizitza proiektuak, herri eta mendi bideen mapak, Hiritik At proiektua, Tolomendiren egitasmoak eta 2005eko hirigintza plana. Horiek guztiek auzoen garapenerako oinarri baliagarria osatzen dute.

■ Azken hausnarketa

Saioaren amaieran, parte-hartzaileei galdetu zitzaion zergatik nahi zuten parte hartu eta zer espero zuten prozesu honetatik. Parte-hartzaileek adierazi zuten beharrezkoa dela landa eremuak elkarrekin antolatzea eta amankomuneko estrategiak definitzea, baina galdera ere plazaratu zuten: "nork gauzatuko ditu azken erabakiak?" Parte-hartzaile askok emaitzak ikusi nahi dituzte, eta ez dute nahi prozesua tramite huts bihurtzea. Entzute aktiboa, adostasunak eta parte-hartze eraginkorra funtsezkotzat jo ziren.

Toki Garapenerako Estrategia batek erabaki ahalmena ematea espero dute, baliabideak hobeto aprobetxatzeko, eta eremu guztien artean etxebizitza edo mugikortasun planak adosteko. Parte-hartze kolektiboa funtsezkoa da, eta parte-hartzaileek euren ekarpenak elkarrekintzan oinarritutako adostasunetan oinarritu nahi dituzte.

5.3. Talde elkarrizketa

ALDABA TXIKI | OLARRAIN | BEDAIO

■ Ingurumena, paisaia, historia eta kultura

Aldaba-Txiki eta Olarrain inguruan kezka handia dago kutsadurarekin lotuta, bereziki elektromagnetikoarekin eta errepideen ondoriozkoarekin. Etxeen ondotik igarotzen diren hiru linea elektrikoen eragina ez dela ezagutzen adierazi zuten, eta neurketa bat egitea ezinbestekoa litzateke. Olarrain hiri eta landa arteko erdibidean kokatzen da; trenbideak bi espazio zatitzen ditu, eta horrek auzoaren izaera ezberdina definitzen du. Historikoki San Estebanen eta Auzotxikiren parte izan da, eta horrek auzo nortasun propio baten falta ekarri du.

Ingurumena txukun mantentzearen beharra azpimarratu zen. Sasiak garbitu, erreka zaindu eta ondare elementuak —esaterako, akuaduktoa— berreskuratu beharra dagoela aipatu zen. Tolosako karrozak eta bestelako materialak pilotzeko gune bihurtzeko arriskua dago, eta horren kudeaketa egokia eskatu zuten. Akuaduktoa utzita dago, eta Lizardiren monolitoa ingurua garbitzen zuen Lizardi elkartearen ekimenez mantentzen bazen ere, gaur egun ezin da bertatik pasa, ezta Dama-Iturritik edo Olarrain ingurutik ere. Proposatu zen zirkuitu bat markatu eta horren mantenua auzolanean egitea, baina Udalaren inplikaziorik gabe, oraingoz MTBikeko kideek garbitzen dute, instituziorik gabe.

Bedaion, ingurumenarekin lotutako ekimen bat bezala, Aranzadirekin batera umeei aska bat prestatu zen, baina mantenu falta dela eta abandonatuta dago. Ekimen horiek berreskuratzea beharrezkotzat jo zen.

■ Mugikortasuna, hirigintza, azpiegiturak, energia eta etxebizitza

Aldaba-Txiki eta Olarrain auzoetan oinarritzko zerbitzuetan gabeziak nabari dira. Herriko ur-sarera konektatzeko zailtasunak dituzte; beheko aldean ez dute konexiorik eta goiko aldekoek oraindik biltegi propioak erabiltzen dituzte. Saneamenduaren kolektorea lotzea amaitu gabe dago eta lehentasunezko gai moduan kokatu zen.

Oinezkoentzako pasabide falta salatu zuten. Auzoaren sarrerako etxebizitza berrietara jende ugari etorri denez, aparkalekuak behar dira. Gainera, azpiko gurutzebidea arriskutsua dela nabarmendu zen. Herri-bideak itxi dira, txabola batzuk eraiki direlako, eta autoen trafikoa handia da. Olarrain hutsik gelditzen ari da: etxebizitza asko hutsik daude.

Garraio zerbitzuek gabeziak dituzte. Olarrainek ez du auzo-taxi zerbitzurik, ezta bus urbanoaren estaldurarik ere. Benta Haunditik bidegorrira arteko lotura falta da, eta jende asko ibiltzen bada ere, zenbait tarteetan ez dago espaloirik. Bentaundiko aparkalekua utzita dago baina oso erabilia da. Azpeitirako bidegurutzean rotunda bat egitea proposatu zen.

Hirigintza ikuspegitik, berroneratze integrala eskatzen da. Etorkizunean proiektu sakon bat bultzatzea proposatu zen, auzoaren egituraketa eta kalitatea hobetzeko.

Bedaion, irisgarritasun arazoak larriak dira. Espalorik ez dago, elkarteak aldapan dago eta gurgildun aulkikoak ez dira bertara iristen. Karreteraren bigarren zatia konpondu behar dutela esan diete, eta ur-kanalizazio faltak eta harri-erorketek segurtasun arazoak sortzen dituzte. Taxi zerbitzurik ez dago, eta nahiz eta Diputazioak zerbitzu minimo bat jarri duen, Udalak ez du inolako erantzunik eman. Urbanistikoki, herrigunea ez dago osatuta. Frontoia, bere sarbideak, irisgarritasuna, komun publikoa, aparkalekuak, jatetxe bat, sare digitala eta internetarako sarbidea falta dira. Errepide, bidegorri eta aparkalekuen gabezia larria da, eta bertako gazteek ezin izan dute bertan bizitzeko aukerarik izan. Etxebizitza proiekturik ez da gauzatu, nahiz eta 2005eko plan orokorrean aurreikusita zegoen. Gainera, erretako baserri bat dago, harriak erortzen dira, eta Udalaren titulartasuneko beste eraikin batzuk (Eskoletxe) egoera larrian daude.

Biztanleria, parte-hartzea eta bizikidetzak

Aldaba-Txiki eta Olarraineko bizilagunek salatu dute Udalarekiko interlokuziorik ez dagoela. Parte-hartze prozesu asko egin diren arren, ez da emaitzarik ikusten. Aurreko batzordea desegin zenetik, ez dago eskakizun amankomunik, eta Udalaren aldetik utzita daudela sentitzen dute. Erabakiak aldebakartasunez hartzen direla diote, auzoaren iritzirik kontuan hartu gabe.

Egun ez da existitzen udalarekiko harreman formalik, eta Udalak auzoetan ekintzak programatzea proposatzen da: hitzaldiak, kultur ekintzak eta abar, auzoa dinamizatzeko eta ikusezin bihurtu ez dadin. Auzo izaera badago, eta ekimen puntual batzuk egiten dira, hala nola Santa Ageda edo Gabonak, baina horiek ez dira nahikoa. AuzoEkinetik saretze hori sendotu eta antolakuntza kolektiboa bultzatzeko aukera ematen du. Gainera, etorkizunean biztanleriaren zahartzearen ondorioz mendekotasun egoerak sortuko direla aurreikusten da, eta alde aurretik neurriak hartzea beharrezkoa dela adierazi zen.

Etxe askok ez dute letrerorik, eta horrek kokapena zailtzen du. Elkarrekin pisua hartu du gune horietan, Aldaba Txiki, Auzotxikiko behealdea eta Olarraineko bizilagunenentzako elkargune bihurtuz. Auzoen banaketa berria egitea planteatu zen, AuzoEkin baliatuta. Elkarrekin, zuzendaritza batzordearekin batera, kultur ekintzak antolatzeke batzorde paralelo bat sortzen ari da, bizilagunen parte-hartzea zabaltzeko helburuarekin.

Bedaion ere antzeko sententzia dago: Udalaren partetik abandonatuta daudela sentitzen dute, eta hainbat lanketa egin arren ez dute aldaketarik ikusi. Administrazioarekiko burokrazia murriztea, komunikazioa hobetzea eta elkarlan esparru eraginkorra sortzea ezinbestekoa da. Auzogintzan inplikaturik dagoen jende kopurua urriagoa da, batez ere 18-45 urte arteko tartean, eta horrek ekimenak aurrera eramateko zailtasunak sortzen ditu.

Hala ere, auzoari atxikimendu sendoa nabarmentzen da. Elkarrekin baitan lantaldeak antolatuta daude, bakoitza bere erantzukizunarekin, eta horrela gauzatzen dira ekimen desberdinak. Eredu hau beste auzoetara eraman daiteke, erreplikagarritasunaren ikuspegitik.

Ekupamenduak, zerbitzuak, ekonomia eta kontsumoa

Aldaba-Txiki eta Olarrainen, eskura dituzten zerbitzu eta baliabide asko ez dituzte ezagutzen. Horregatik, informazioa hobeto helaraztea eta zerbitzuen komunikazioa indartzea proposatu zen. Publikoak diren eraikin edo espazio hutsei erabilera ematea premiazkoa dela adierazi zuten, eta Elkartearen azpiko aretoa baliatzen da musika entseguetarako, dantza saioetarako edo bestelako erabileretarako.

Jarraipen protokolo bat proposatu zen: Udalak hiruhilabetero auzoetara joatea, egoeraren azterketa egin eta beharrei erantzuteko. Udaltzainek ere, auzoko arazoetan arreta jartzea eta gertatzen diren intzidentziak jasotzea beharrezkotzat jo zen.

Bedaion ez dago komun publikorik, nahiz eta frontoiaren inguruan premia nabarmena izan. Abaetxeko gaineko espazio librea erabil liteke hitzaldiak edo bestelako ekintzak egiteko, baina oraingoz ez da irisgarria. Normalean frontoia erabiltzen da, baina eguraldi txarra egiten duenean espazio hori ez da egokia eta alternatibarik ez dago..

AUZO TXIKI | URKIZU | ALDABA

Ingurumena, paisaia, historia eta kultura

Parte-hartzaileek ingurune naturala babesteko beharra nabarmendu zuten, batez ere babestutako lurren balio ekologikoa eta kulturala azpimarratuz. Urkizuko basoak mendikate natural gisa identifikatu zituzten, eta ez dute egokitzat jotzen baso landaketa berriak egitea. Historia alorrean, Paco Etxeberriak zuzendutako aztarnategiaren eta indusketa lanen balioa goraipatu zen, eta lurra egoera onean bueltatzeko beharra ere aipatu zuten. Aldaban, orientaziorako ibilbide-panel bat dago kokatuta eta oso ondo baloratu zuten auzotarrek. Gainera, garai batean bertan ogi ekologikoa ekoizten zela gogora ekarri zuten, eta horrek tokiko memoria kolektiboari egiten dion ekarpena nabarmendu zuten.

Mugikortasuna, hirigintza, azpiegiturak, energia eta etxebizitza

Garraio publikoaren gabezia nabarmena da auzo guztietan. Ez dago garraiorik larunbat arratsaldeetan eta igandeetan, eta aste barruan 4-5 orduko tarteekin bakarrik pasatzen da. Taxi-hitzarmen bat badago Udalarekin (bidaiaren truke euro bat ordainduz), baina ez da aplikagarria bisitariantzat. Honek oztopoak sortzen ditu familia edo lagunak bisitan etortzeko, eta kontuan hartu behar da auzoetan pertsona nagusi asko bizi direla. Taxi-zerbitzuaren hitzarmena zabaltzeko beharra argi adierazi zen.

Errepideen egoerak kezka handia sortzen du. Urkizuko errepidea, adibidez, oso estua da eta bi auto ez dira batera pasa daitezke. Zati batzuk egoera txarrean daude eta konponketarik gabe jarraitzen dute, zirkulazio arazoak eraginez. Karririk ez dago, kunetak garbitu gabe daude eta zaborra pilatzen da, eta garbiketa lanak auzotarrek beren kabuz egiten dituzte. Tolosarako bide duin bat behar dela adierazi zuten, seinaleztapen hoberekin. Urkizun Udalak aparkalekuaren P seinale bat jarri zuen arren, askok etxe atarietan aparkatzen jarraitzen dute.

Ura, estolderia eta fosa septikoen egoera ere aipatu zen. Ur hornidura ez da egokia auzo guztietan, oraingoz nahikoa den arren; biztanle kopurua handituz gero ez litzateke aski izango. Auzo Txikin eta Urkizun ez dago fosa septikorik, Aldaban bai. Nahiz eta ez den arazo larritzat hartu, osasunarekin lotura duen gai bat dela onartu zuten.

Etxebizitza arloan, gazteek auzoetan geratu nahi dute, baina horretarako aukera gutxi dute, nahiz eta espazio fisikoa soberan egon. Elizaren abadetxea biziberritzeko proposamena luzatu zen etxebizitza alternatiba gisa. Auzoak zahartzen ari dira, eta gazteei aukera berriak ematea funtsezkoa da komunitatea bizirik mantentzeko. Azpiegitura faltagatik hainbat proiektu huts egin dutela azpimarratu zuten, eta ur eta aparkaleku gabezia aipatu zituzten etxebizitza berriak egiteko oztopo nagusitzat.

Bestelako hobekuntza batzuk ere aipatu zituzten, hala nola errepideen zabalpena, taberna baten berrirekiera eta mantentze-lanetarako makineria eskuratzeko premia. Aldaban, antzeko arazoak dituzte: argiteria, zorua, estolderia eta bideen egoera kaskarra da, bereziki Aritzmendi inguruan. Parkinga inprobisatua da eta ez dago epe luzerako plangintzarik. Neguan, bideak ez dira gatzez estaltzen eta zikinez betetzen dira.

Biztanleria, parte-hartzea eta bizikidetza

Auzo Txiki auzo sakabanatua da eta ez du herrigunerik. Goiko aldeak Urkizurekin lotura estuagoa du eta beheko aldeak, berriz, Olarrainekin. Ez dago plazarik ezta topagunerik ere; beraz, batzuek Urkizuko sozieadeko espazioa erabiltzen dute elkartzeko. 2010ean sortutako elkarteak funtsezkoa bihurtu da dinamizazio komunitarioan.

Urkizuko elkartearen eta Udalaren arteko harremana zuzena da, eta gazteen parte-hartzea positibotzat jo zuten. Hilabetero egiten den hamaiketako azpimarratu zen komunitatearen arteko harremanak mantentzeko espazio gisa. Aldaban, elkarteak ere funtsezkoa da, baina udalarekin dituzten harremanak motelak eta burokratikoak direla salatu zuten. Uste dute Udalak ez diola behar bezalako arreta eskaintzen, eta dirulaguntzak lortzea eta justifikatzea zaila egiten zaie. 2024ko dirulaguntza oraindik ez dute jaso, eta auzotarrek bere poltsikotik ordaindu behar izan dituzte gastu batzuk. Argia eta interneta elkarteak ordaintzen ditu, eta WhatsApp talde bat dute komunikaziorako. Elkarteak bera da elkargune nagusia, eta haren biziraupena bermatzea funtsezkoa da komunitatearen etorkizunerako.

Apaisearen lokala, bestalde, ez da erabiltzen eta 15 urteko cesioa amaitzeaz dago. Horrek ezinegona sortzen du, etorkizuna argi ez ikusteak auzoaren antolaketan eragina duelako. Biztanleriaren zahartzeaz dagokionez, adineko asko bizi dira auzoetan, eta haien zatia ez dago oinarritzeko zerbitzurik, hala nola erosketak edo garbiketa lanetarako laguntzarik. Komun publikoak ez dira garbitzen, garbitzaile falta dagoelako, eta azkenean auzo elkarteak bere gain hartu behar izan dituzte gastu horiek.

■ Ekipamenduak, zerbitzuak, ekonomia eta kontsumoa

Urkizuko taberna pribatu baten egoera aipatu zuten: ez dute irekitzen eta ez dago saltzeko asmorik. Taberna baten irekiera garrantzitsua litzateke giro soziala berpizteko eta elkargune gisa aritzeko. Eremuan ez dago komun publikoren bat, ez eta iturririk ere. Mahai publikoak egoera txarrean daude, eta erabilera baldintzak ez dira egokiak.

Zerbitzuen mantentze-lanetan ere gabezia handiak daude. Ez dago makineriarik lan horiek egiteko, eta auzotarrek eskuz egin behar izaten dituzte lan guztiak. Auzo guztietan errepikatzen den arazo bat da hau, eta nekea eta frustrazioa sortzen ditu. Horren aurrean, proposamen bat luzatu zen: auzo landatarren artean zerbitzu komun batzuk kolektibizatzeke egitura bat sortzea. Horretarako, udal finantzaketaren inguruko baldintzak malgutzea eskatu zuten, tokiko autonomia eta efizientzia handiagoa lortzeko helburuarekin.

5.4. Tailer irekiak

Saioaren hasieran, parte-hartzaileek auzoko eguneroko arazoei buruzko kezka batzuk plazaratu zituzten. Aritz izeneko parte-hartzaileak azaldu zuenez, WhatsApp talde bat sortu dute gorabeherak edo arazoak azkar identifikatzeko. Hala ere, salatu zuen udaltzainek informazio hori jaso arren, askotan ez dagoela ekintzarako gaitasunik, administrazioaren eta operazioaren arteko “traba” batzuk medio. Gainera, komunikazio-kanalak ez daude argi zehaztuta, eta horrek informazioaren joan-etorria zailtzen du. Azken finean, herritarren eta erakundearen arteko zubiak ahulak dira, eta horrek ezinegona eta frustrazioa sortzen ditu.

■ Erronken Lehentasunaren Dinamika (Gometzak)

Saioaren bigarren zatian, parte-hartzaileei 4 gometz berde ● eta 2 gometz gorri ● banatu zitzaizkien, erronkei ematen dieten lehentasunaren arabera sailkatzeko. Gometz berdeek ● lehentasun handiko gaiak adierazten zituzten, eta gorriak ●, berriz, lehentasun txikiagoa zutenak.

Lehentasun handiena jaso zuten erronkak errepideen egoera eskasa izan zen, 11 gometz berde ● jaso baitzituen. Ondoren, etxebizitza proiektuak auzoa berpizteko nabarmendu ziren (10 gometz berde ●) eta udalarekiko interlokuzioaren gabezia (7 gometz berde ●). Garrantzi handiko gisa ere herribideak zaintzeko beharra (6 gometz berde ●), eta landa-auzoek duten ondarea zaintzea (5 gometz berde ●) aipatu ziren. Bestalde, ur-sarearen eskasia eta fosa-septiken gabezia ere nabarmendu zen (4 gometz berde ●).

Lehentasun txikiagoa jaso zuten erronkak, berriz, udalaren finantzaketa (3 gometz berde ● / gometz gorri ●), auzo elkarten indarguneak (3 gometz berde ● / gometz gorri ●) eta herriguneko urbanizazio falta izan ziren. Horietan gometz gorriak ● ere agertu ziren, hau da, parte-hartzaile batzuek lehentasun txikiagoa eman zietela adierazi zuten.

Talde Eztabaidak: Mahaletako Ekarpenak

Mahai 3 – Elkarrizketa, Azpiegitura eta Ikuspegi Orokorra	Mahai honetan parte hartu zutenek argi utzi zuten udalarekiko interlokuzioa ez dela erabateko hutsunea, baina bai erantzunik ez jasotzea dela arazo nagusia. Adostasun osoa lortu zuten puntu honetan (%100). Errepideen egoerari dagokionez, Foru Aldundiaren eskumenekoak diren karreterak ez dira zuzenean auzotik kudea daitezkeenak; hala ere, udalaren bitartez presio handiagoa egin daitekeela nabarmendu zen. Bestalde, Tolosako udalaren ardurapeko errepideetan adostasun partziala egon zen. Herribideak eta ondarea ondare gisa baloratzea aukera interesgarritzat jo zuten, nahiz eta ez zuten adostasun osoa lortu. Etxebizitza proiektuek ere interesa piztu zuten, eta gehiengo batek (%60) hauek aurrera eramatea beharrezkotzat jo zuen. Ur-sarearen egoerari dagokionez, guztiek premia onartu zuten, nahiz eta puntu honetan ez zen adostasun osoa egon. Finantzaketari dagokionez, egoera ahul gisa deskribatu zuten parte-hartzaile guztiek. Urbanizazio falta, nahiz eta gometz gutxi jaso, parte-hartzaile guztiek gai orokor eta sakon gisa ikusi zuten, eta landa-ikuspegi baten beharra azpimarratu zuten.
Mahai 2 – Loturak, Garraioa eta Finantzaketa	Mahai honek etxebizitza eta errepideen arteko lotura azpimarratu zuen: ezin dira bata garatu bestea gabe. Ura berriro ere lehen mailako behar gisa agertu zen, eta denek nabarmendu zuten bere premia. Garraioaren gaiak eztabaida sortu zuen, taxi zerbitzurik ez egoteak herritarren mugikortasuna mugatzen duela adieraziz. Honek kasu batzuetan Bedaio bezalako guneetan eragin zuzena du. Mugikortasun eskasa, oro har, herritarren independentzia mugatzen duen faktorea bezala agertu zen. Finantzaketaren inguruko kezka nabarmena izan zen: elkarrekin dinamika komunitarioa izan dezaketen arren, administrazio-burokrazia oztopo bihurtzen da, eta askotan geldiarazten ditu ekimenak. Horrek ezinegona sortzen du, eta tokiko ekimenen bizitasuna moteldu.
Mahai 1 – Oinarrizko Azpiegiturak eta Bizitza Baldintzak	Mahai honek errepideak oinarrizko elementu bezala definitu zituen, eta haien gabezia edo egoera kaskarra salatu zuten. Ur-horniduraren arazoa larritzat jo zen, Urkizu elkarteko bizilagunek hiru aldiz edateko urik gabe gelditu direla adierazi zuten, eta konponbiderik ez dutela jaso. Azkenik, oinarrizko baliabideak —ura, azpiegiturak, etxebizitza— elkar lotuta daudela azpimarratu zen: elementu bat huts egiten badu, gainerako guztiek ere eragina jasaten dute. Ez da posible kalitatezko bizitza bat oinarrizko zerbitzurik gabe.

■ Azken Hausnarketak eta Ondorioak

Parte-hartzaile guztiek bat egin zuten oinarrizko beharrei lehentasuna ematearen ideiarekin. Auzoren batean premia larriagoa egon daiteke, baina gutxieneko zerbitzuak herritar guztientzat bermatu behar dira. Hirurehun mahaietan lortutako adostasuna nabarmena izan zen, eta ikuspegi orokor partekatua zegoela ikusi zen. Arazoak anitzak dira, baina herri-auzo guztiei eragiten diete. Horregatik, ezin da ikuspegi bakar eta uniformerik aplikatu, baina bai partekaturiko ikuspegia oinarrizko zerbitzuen inguruan.

Hausnarketa batean azpimarratu zen zenbaki hutsek ez dutela errealitate osoa islatzen. Kalitatezko ikuspegia hartu behar da kontuan: irisgarritasuna, jasangarritasuna eta zerbitzuen erabilgarritasuna bezalako faktoreek garrantzi handia dute. Bizikidetzarako minimo batzuk bermatu beharra nabarmendu zen, eta galdera gako batzuk planteatu ziren: Nola bermatu bizikidetzaren duina auzo guztietan? Nola helarazi udalera auzoen iritziak? Zein izango da jasoko den erantzuna?

Azkenik, ura behin eta berriz agertu zen lehentasunezko gai gisa. “Ura beharrezkoa da, bai edo bai” esaldia askotan errepikatu zen. Horregatik, proposatu zen gai hauen jarraipena egiteko teknikari bat edo komisio berezi bat sortzea. Hausnarketa praktikoago batek baliabideen erabilera “ateratzea” ere proposatu zuen: “60.000 euro izango baditugu, ez al da logikoagoa baliabide horiek gauza txikiago eta kudeagarrietarako erabiltzea?”. Honek agerian uzten du herritarren artean dagoen kontzientzia praktikoa eta errealismoa, baliabide mugatuen kudeaketa arduratsua lehenetsiz.

5.5. Ibilbide gidatuak (Deribak)

5.2.4.1. Olarrain, Aldaba-txiki, Auzotxikia eta Urkizu

1, 2, 3 Bidegurutzea

1.- Biribilgune bat planteatu zen baina ez da ezer egin oraindik. Kamioi pisutsuak pasatzen dira eta bidegurutzean askotan sustoak egon izan dira.



2.- Bidegurutzean dagoen Oteizaren eskultura ere babestu eta goratzeko eskatera egiten da.



3.- Tolosarako sarrera, ubidearen ondoan, dagoen terrenoa pribatua da. Aldundiari eskaera egin zitzaion, baina ezerezean gelditu zen.

4.- Espaloi falta dago bidegurutzetik sarrerarako bide osoan zehar. Aparkalekua ere utzita dago eta bidegorri falta dagoela ere azpimarratzen dute.

Auzo-txikia

7 Bidegurutzea

1.- Menditik jaisten den urak bidegurutzea urpetzen du. Arketa bat eskatua dago — zinegotziak dioenez—eta jartzeko asmotan dira.



Urkizu

8

Iturria

1.- Ur depositoa ez da hermetikoa eta ez dago auzo-elkartera iristeko hainako azpiegitura. Lehen eskolarena zen eta orain elkar-tearentzat erabiltzen da Udalarena den depositoa. Goian (mendian) beste deposito bat badagoela diote, baina hori pribatua dela.



9

Bolatokia

1.- Bolatokia eraberritzeko eskaera egiten da. Zaindu beharra dagoela azpimarratzen dute eta egur berriak eta hondarra jarri behar dela.

2.- 2003an egin zen azkeneko mantenuan, eta terrenoa pribatua denez, eskaera egin beharko litzateke berriro.



10

Aparkalekua

1.- Ez dago seinalizatua eta kanpotik datozenek edozein lekutan aparkatzen dute. Lurreko marrak hobeto zehaztea proposatzen da.



11

Auzo-elkarte ondoko terrenoa

1.- Aparkalekuaren ondoan dagoen terrenoaren inguruko azalpena ematen da. Bertan 24 etxebizitza egitekoak ziren eta horregatik egin zen gaur egun auzo-elkartea dagoen lekuan.

2.- Terrenoa rustikoa izatetik urbanizable izatera pasa zen, baina etxebizitzak egiten ez zirela ikusita —eta mantentzea duen kostuak medio—, rustikora bueltatu zen. Hor etxebizitzak egin daitezkeela diote baina ez dago plan konkreturik. Irudian gorrian markatzen den terrenoa.



5.2.4.2. Bedaio, Ugane eta Aldaba

Aldaba

1 Aldabara sarrera

1.- Puntu baxuena da eta bertan urak biltzen duten objektu eta ura bera gelditzen da. Ez dago ura bideratzeko nahikoa azpiegitura



2 Intxur frontoia

1.- Intxur frontoitik gora doan aldapan penditza handia dago eta irristakorra da euria egiten duenean. Auzotarrek diote udalak lakaztu egin izan duela baina berriro dago beharra.

2.- Aldaparen zabalera ere estua dela diote eta bide alternatibo bat egin daitekeela, 3. puntuan aztertuko dena.



3

Bide alternatiboa eta aparkalekua

1.- Ordezko bidea erakusten dute bizilagunek. Beheko irudian ikusten den zulo horretatik gora planteatzen dute izatea.



2.- Aparkalekua ere zaindu gabe dagoela diote. Bizilagun batek hondarra bota zuela baina ez dago lurra eginda.



3.- Txozna ere —goiko irudian urdinezko egitura—aparkalekuan gordetzen da.

- Goranzko bidean berri dirulaguntzen formatuaren inguruan eztabaidatzen da. Zinegotziek %75a dirutan aurreratzeko aukera dagoela ziurtatzen dute eta Bedaioko bizilagunek eskaera eginda ere, hilabeteak irauten dutela ordainketa egiten. Ezerezean gelditzen da.

4

Lopetegi

1.- Galipota bota zuten lurrean baina zati bat amaitu gabe gelditu zen. Osatzeko eskaera egiten dute.

2.- Bi puntu farola falta dira bertan ere.



- Uganera behera goazela argi toma bat eskatzen da, bertan dagoen baserri batean jartzeko.



Ugane

5 Uganera bidean

1.- Iztingorri baserriko (“granja”) makinaria pasatzeko, orain Ugane auzo erditik pasatzen da eta bertako bizilagunek bide berri bat asfaltatzeko eskaera egiten dute.

2.- Bidea egiteko materiala emanaz gero, bertako jabeak berak egingo lukeela azpimarratzen dute. Proiektua Udalak aurkeztu beharko luke.



3.- Gaur egun egiten duen bidea hau da:



6 Iztingorri baserria

1.- Argi toma bat eskatzen da, puntu txuria dagoen lekuan:



Bedaio

7 Eskoletxe

1.- Etxearen mantenua eskatzen da. Eraikuntza oso egoera txarrean dagoela baieztatzen dute bizilagunek eta Udalarena dela. Terrenoa pribatua delakoan daude, baina ez da ziurra.



2.- Bertan ere haurrak autobusa hartzen dutela diote, eta kurba dagoenez, seinaletika falta azpimarratzen dute, haurrak ibiltzen diren zonaldea adierazten duen seinalea.

3.- Eskoletxe pareko baranda puskatua dagoela diote.



4.- Eta Eskoletxetik gora, herribiderako mantenua eskatzen da, egoera txarrean baitago, bizilagunen iritzitan.

8 Bedaio herria

1.- Aparkaleku beharra dutela diote. Beheko irudian atzean dagoen bidean zehar aparkatu izan ohi dutela esanez baina ez dagoela nahikoa leku bertan.



2.- Abaetxe jatetxea itxi egin dela diote, esleipen bat egon zela eta kontratua amaitzearekin batera bertan behera geratu dela zerbitzua. Zinegotziak dio badagoela interesaturik eta egin beharreko prozesuan direla zerbitzua berriro ere martxan jartzeko.



3 Frontoia

1.- Frontoiko pareta pintatzeko dago.

2.- Frontoira jaisteko ez dagoela aukerarik diote, atzeko bidetik bakarrik eta han ere arazoak dituztela. Atrzeko bidetik kamioia ez da sartzen eta pareta moztu eta sartzeko eskaera egiten da.



3.- Frontoiak itokinak dituela ere aipatzen dute eta haiek itxi behar direla.

4 Auzo-elkartea

1.- Garbiketa falta da auzo-elkarteko "terrazan". "Beharrak daude" elkartearen parean: irisgarritasuna falta zaiola askotan azpimarratu da baina oraindik ez dela ezer egin azpimarratzen dute.




2.- Erretenak egin behar dira elkartearen atzean, goitik jaisten diren urak harriak ekartzen dituzte eta arriskutsua jartzen da kotxeentzat.



- Aipamen bat ere egin dute suhiltzaileen mangeraren egoeraren inguruan. Ez dela inspekzio eta mantenurik egin urteetan eta errebisio baten beharrean dagoela diote.



- Bukatu bitartean, hilerriko sarreraren inguruan hitz egiten da. Labaderoa eta sarrera batzeko ideia dago, auzoa ezagutzeko bide egokia izan daitekeelakoan. Beheko irudian aipatzen den bidea da baina mantenu falta duela diote.



1.

6. IRAKURKETA SINTETIKOA ETA ONDORIO NAGUSIAK

AuzoEkin prozesuak agerian utzi du Tolosako landa eremuko errealitatea anitza eta konplexua dela, aurrera begirako estrategia eraginkorrak ezartzeko potentziala ere handia izanik. Egin den azterketa datu kuantitatiboetan eta bizilagunen parte-hartzetik eratorritako ekarpen kualitatiboetan oinarritu da, errealitatearen irudi multidimentsionala jasotzeko aukera eskainiz.

Batetik, iturri estatistiko ofizialetatik eta biztanleriari zuzenean egindako inkestetatik ateratako datuek eremuaren gaur egungo erretratua erakustea ahalbidetu dute, hainbat aldagaien ezaugarritzea osatuz: hala nola, biztanleriarena, ekonomia eta enpleguarena, etxebizitzarena, ingurumena, hiri-espazioa eta garraioarena, bizikidetzarena, eta gobernantza eta zerbitzuena. Horri esker, eremuko joera nagusiak eta erronka nagusiak zehaztasunez identifikatu dira. Bestetik, elkarrizketa sakonak, focus taldeak, tailer irekiak eta ibilaldi gidatuak (deribak) bezalako tresnek bizilagunen ahotsa eta esperientzia zuzena txertatu dituzte diagnosi honen txostenean. Herriarren ikuspegi horrek zenbait datu hotzekin kontrastea ekarri du, eta askotan errealitatea modu biziago eta zehatzago batean ulertzea ahalbidetu du.

Landa eremuak biztanleriaren beherakada erregistratu du azken hamarkadan, bizikidetzaren unitateen tamainaren gutxitzearen, biztanleriaren zahartze progresiboaren eta kanpotik etorritako jendea erakartzeko gaitasun ezaren ondorioz, etxebizitzaren mobilizazio ezarekin ere lotuta egon daitekeena. Gehiengoak denbora luze darama bertan bizitzen eta ez da bermatu errelebo demografiko endogenorik. Adinean gora eginiko pertsonen kopurua inportantea izanik, gehiengoa biztanleria ez-aktiboa da. Biztanleria aktiboari dagokionez, landa eremuan ez da apenas langabeturik. Lan-merkatuaren itoaldi ezak eta bizilagunen tokiarekiko aspaldiko presentziak bizikidetzaren unitateen egoera ekonomikoaren larritasun eza isla dezake. Alde horretatik, errenta mailak erlatiboki nasaiak dira eta ez da hilabete bukaerara iristeko aparteko zailtasunik nabarmentzen.

Etxebizitzen jabetza ordaindua erabat orokortuta egoteak ere ekar dezake nolabaiteko nasaitasun ekonomiko hau, etxebizitza gastuetara bideratutako zama nahiko urria baita. Bestalde, gazteen emantzipazio gaitasun eza azpimarra daiteke, aurretik aipatutako etxebizitza eskaintza endogenoaren gabeziaren isla.

Luzaro bertan bizi den jendea izanagatik, landa eremuarekiko atxikimendua ez da horren nabarmena, baina bai ordea, auzoen dinamizazioan aktiboki lan egiteko prestutasuna eta inplikazioa. Nolabait, auzoaren egoerarekiko kritikotasuna nagusitzen da, gobernantzarekiko, ingurune fisikoarekiko, hiri-espazioko elementuekiko, mugikortasun eta garraio aukerekiko edota oinarritzko jarduera eta zerbitzuak izateko aukerekiko ikuspegi ezkorrak gailenduz.

Landa auzoetan egindako tailer irekiek eta deriba parte-hartzaileek sakondu egin dute diagnostikoaren irakurketa, datu teknikoak bizilagunen bizipen eta esperientzia errealekin uztartuz. Auzoetan, oinarritzko azpiegituren gabezia da mezu bateratua: ura, saneamendua, argiteria eta bideen egoera dira lehentasun partekatua. Arazo hauek ez dira soilik zerbitzu faltatzat soilik ikusten, landa-eremuaren eta Udalaren arteko elkar-eragin faltarekin alegia. Honekin lotuta, Udalarekiko distantzia eta komunikazio eskasa aipatu dira errepikatutako kezka gisa. Bizilagunek interlokuzio iraunkorrak sortzea proposatu dute —adibidez, auzoen jarraipen teknika bermatuko duen figura edo batzorde bat—, konfiantza berreraikitze eta erabakiak partekatzen joateko.

Auzogintza eta komunitatearen aktibazioa funtsezko elementu gisa agertu dira ere diagnosiaren prozesuan. Elkarrekin dira landa auzoetako bizitza sozialaren euskarri nagusia, baina egiturazko zailtasunak dituzte: baliabide ekonomikoen kudeaketa geldoa eta belaunaldi erreleboaren gabezia, batez ere. Parte-hartzaileek beharrezkotzat eman dute auzo-elkarteen arteko sare iraunkorra, esperientziak, tresnak eta bestelako ekintzak partekatze aldera.

Azkenik, ondarearen eta paisaiaren balioa agerian utzi dute deribek. Herribideak, erreka-inguruak eta eraikin historikoak ez dira soilik iraganeko aztarnak, auzoei nortasuna eta komunitatearen harremanen ardatz bizi gisa planteatzen dituzte bizilagunek. Ondare hori zaindu eta aktibatzea auzoen biziberritzearen parte gisa ulertu da eta hala eskatzen zaio egitea Udalari ere.

Hortaz, agerikoa da landa eremuak hainbat erronka erakusten dituela, berezkoak zaizkion indarguneak baliatuz aurrera eramane beharko dituenak eta ondoren sintesi gisa azaltzen direnak, aurrera begirako auzo-planen eta garapen estrategikoaren abiapuntu gisa baliatzeko:

- Auzoen ezaugarri soziodemografikoak: biztanleriaren zahartzea eta belaunaldi gazteen emantzipazio zailtasunak faktore erabakigarriak dira. Horrek eragin zuzena du tokiko biztanleriaren eta komunitatearen egituran eta landa auzoen etorkizuneko perspektibetan.
- Azpiegitura eta zerbitzuen gabeziak: landa eremuetan oinarritzko zerbitzuak (garraioa, ura, saneamendua, bideak, ekipamenduak) eta balioak (ondare materiala eta immateriala) bermatzea erronka nagusietako bat da.

- Komunitatearen kohesioa eta auzogintza: parte-hartze maila eta auzo atxikimendua desberdinak izan arren, herritarren inplikazioak erakutsi du auzo elkarrekin, kultur ekimenek eta bizilagunen sare informalek garrantzi handia dutela auzo identitatea bizirik mantentzeko. Horretan, belaunaldi berrien inplikazioa lantzen jarraitzeko premia azaltzen da.
- Ko-gobernantza eta harreman instituzionalak: sarritan utzikeria sentsazioa eta interakzio eraginkor baten falta adierazten dira. Prozesuak argi utzi du beharrezkoa dela Udalaren eta auzoen arteko interlokuzio iraunkor eta egituratuago bat, bizilagunen ahotsa goratu eta planifikazio eta erabaki-egitura emankorrak sustatzeko.

Amaitzeko, AuzoEkin-ek erakutsi du tokiko garapen parte-hartzaileak ahalmen handia duela auzoen premiei modu integralean heltzeko. Alde horretatik, talde eragileen sorrera eta oro har, burututako azterlanaren baitan aktibatutako dinamika ezinbestean baliatu eta elikatu beharreko ardagaiak dira. Erronka nagusiak identifikatuta, hurrengo fasean lehentasun estrategikoak zehaztea eta auzo plan errealistak gauzatzea izango da funtsezko urratsa, herritarren eta Udalaren arteko lankidetzaren sendoa garatuz.

7. GAKO ETA LEHENTASUN NAGUSIAK

AuzoEkin prozesuak identifikatutako erronkei aurre egiteko eta indarguneak modu eraginkorrean baliatzeko, ondorengo gako estrategikoak eta lehentasun nagusiak finkatu dituzte bizilagunak oro har:

1. Oinarrizko zerbitzuak eta azpiegitura bermatzea

- a. Landa eremuetan, ura, saneamendua, bideen egoera eta garraio publikoa dira premia nagusiak.
- b. Auzo urbanoetan, irisgarritasun hobe, mugikortasun jasangarria eta espazio publikoen egokitzapena beharrezkoak dira.
- c. Azpiegitura hauek bizitza duin eta kalitatezkoa bermatzeko ezinbesteko baldintza dira.

2. Komunitatea indartzea eta auzogintza berritzea

- a. Auzo elkarten eta herritarren sareen rola aitortu eta indartu, belaunaldi berrien parte-hartzea bultzatuz.
- b. Kulturartekotasuna aukera gisa lantzea, auzoetako aniztasuna aberastasun bilakatuz.
- c. Elkarbizitzarako eta jarduera kolektiboetarako espazio fisikoak sortzea edo berreskuratzea.

3. Gobernantza parte-hartzailea sendotzea

- a. Udalaren eta auzoen arteko komunikazio eta interlokuzio kanal iraunkorrak sortu eta egituratzea.
- b. Kexei eta proposamenei erantzun eraginkorra ematea, herritarren konfiantza berreskuratzeke.
- c. Auzoetako talde eragileekin batera plangintza eta jarraipena egitea, erabakietan herritarren ahotsa txertatuz.

4. Indarguneak baliatzea eta aukerak aktibatzea

- a. Ingurune naturala eta paisajistikoa zaindu eta aktibatu, aisialdirako, turismo iraunkorrerako eta komunitatearen osasunerako.
- b. Auzoen historia eta memoria kolektiboa balioan jarri, nortasun eta kohesio faktore gisa.
- c. Ekonomia tokikoaren garapena bultzatu: komertzio txikia, tokiko ekoizpenak eta autoenplegu ekimen berriak.

Lau atal hauez gain, badira bestelako lehentasun orokorrak ere:

- Bizitza duinerako baldintza minimoak bermatzea auzo guztietan, bereziki zerbitzu eta azpiegituretan, eta honekin batera, zahartzearen ondoriozko premiei aurre egitea (osasun arreta, mendekotasunaren kudeaketa, irisgarritasuna).
- Belaunaldi berriei aukerak ematea, auzoetan bizi eta parte hartzeko: gazteen emantzipazioa eta auzoan bertan bizitzeko aukerak sustatzea, etxebizitza eskuragarriak eta gazteentzako baliabideak lehenetsiz.
- Udalaren eta auzoen arteko elkarlan iraunkorra egituratzea, AuzoEkin prozesua tresna eraginkor bihurtuz.

Honenbestez, AuzoEkin diagnosiaren prozesua Tolosako auzoen argazki sakon eta kolektiboa eskaini du: datuetan eta bizilagunen ahotsetan oinarritutako diagnostikoa, errealitatearen aniztasuna eta konplexutasuna agerian utziz. Bide horretan, argi geratu da erronka nagusiei aurre egiteko ezinbestekoa dela elkarlan partekatua, eta herritarren jakintza eta konpromisoa Udalaren plangintzan eta erabakietan txertatzea.

Memoria honek ondorioztatzen du auzoek indargune sendoak dituztela —ingurune naturala, historia eta komunitate-dinamika— eta horiek aktibatuz aukera handiak sortzen direla kohesio soziala, tokiko garapena eta bizi-kalitatea hobetzeko. Aldi berean, lehentasunak zehaztu dira: oinarritzko zerbitzuak bermatzea, biztanleriaren erronkei erantzutea, auzogintza berritzea eta gobernantza parte-hartzailea sendotzea.

Hemendik aurrera, AuzoEkin ez da diagnostiko hutsa izango, ekintza-plan errealista eta partekatuen abiapuntua baizik. Prozesu hau aukera paregabea da Tolosako auzoak etorkizun jasangarri, bidezko eta inklusibo baterantz gidatzeko, betiere herritarren eta erakundeen arteko konfiantza, elkarlana eta ilusioa oinarri hartuta.

8. GLOSARIO LABURRA

1. **Pisu erlatiboa:** magnitude jakin baten garrantzia dagokion erreferentziazko markoarekin alderatuta edo hark ezartzen duen testuinguruaren baitan ulertuta.
2. **Biztanleria piramidea:** une jakin batean eremu zehatz batetako biztanleriaren adinaren arabera banaketa irudikatzeko islapen grafikoa, irudikapenaren oinarrian adin talde gazteenak kokatuz eta goialdean, berriz, adin talde nagusienak.
3. **Bizikidetzaren unitatea:** etxebizitza berean bizi diren pertsonen batura, beraien arteko harreman edozein izanda ere.
4. **Etxebizitza huts potentziala:** bertan erroldatutako pertsonarik ez duen etxebizitza. Hau da, bertan erroldatuta ez dagoen pertsonaren bat bizi daiteke etxebizitza horretan.
5. **Emantzipazio tasa:** 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean bere kabuz bizi direnen proportzioa.
6. **Iraupen luzeko langabezia:** gutxienez azken 12 hilabeteetan era aktiboan lan bila aritu arren langabe dirauten pertsonen kolektiboari dagokion langabezia.
7. **Kontziliazio neurriak:** lana eta bizitzari lotutako gainontzeko zaintza funtzioak uztartu eta bateragarri egiteko eskuragarri egon daitezkeen aukerak edo tresna-sortak.
8. **Ongizate emozionala:** norbanakoaren harmonia eta ondo izate aldarte orokorrari dagokio. Bizitzako ohiko presio eta egoerei era eraginkor eta orekatuan aurre egiteko gaitasunari.
9. **Eremu- edo auzo-atxikimendua:** norberaren bizitokiarekiko eta hura osatzen duen komunitatearekiko kide izate sentimendua.
10. **Oinarrizko zerbitzuak:** pertsonen eguneroko bizimodua ahalbidetzeko ezinbesteko baliabide eta aukerak, gutxieneko bizi kalitate estandarrak bermatzeko funtsezkoak direnak.